


# Berrigara



## ***Herriko skaterrak***

*Patinatzeko gunea  
aldarrikatuz*



Bergara

haize.  
**berriak**

bozkatu

**EH**

Euskal Herritarrok









# Itxaropena eta mesfidantza

Nora Palmitano / Irakaslea

**D**atozen hauteskundeetan dena alda daiteke, edo berdin-berdin jarraitu. Azkar doa historia aspaldi honetan Euskal Herrian. Azkarregi ote? Izugarritzko aldaketak oso denbora gutxitan. Nola asimilatu, ordea? Duela oso gutxi arte pentsaezinak ziren elkarriketak, harremanak eta elkarlanak bat-batean berez ematen direla ikustarazi nahi digute. Gu, bitartean, itxaropenez, baina aldi berean mesfidantzaz, ikuskizunari so gaude. Noraino helduko da elkarlan hori? Maila eta arlo guztietara? Herri mailako kontueta-ara ere bai? Bergarako Udaleraino?

Ez dakit zein edo zeintzuk ibiliko diren honen guztiaren atzetik. Zeinek bideratu dituen alderdi politikoen arteko negoziaketak, zeinek hauek eta ETA erakunde armatuarekikoak. Jainkoak lagun diezaiola, gutxiago ez du behar-ko eta. Zorionak horiei, zorionak Lizarra-Garaziko deiari erantzun dioten guztiei, baita Udal Batzarrean parte hartu duten guztiei ere. Zorionak ELA eta LABi elkarlanerako bidea ireki eta eredia erakutsi dutelako.

Historiak askotan ematen ditu bueltak, eta behin eta berriro gertaera ba-

tzuk errepikatu egiten dira. Hala ere badaude aukera batzuk historian zehar bakarrak direnak, inoiz berriro errepikatuko ez direnak. Susmoa dut horrelako baten kasuan gaudela, eta ematen du ez gaudela aukera eder hau alperrik galtzeko prest.

Gure inguruan Espainia eta Frantziako gobernuak jokoz kanpo gelditu dira, jokotik gero eta urrunago esango nuke. Argitaratuko al dira noizbait azken hilabeteetan Mayorrek eta konpainiak egindako adierazpen guztiak, su-etena "tranpa" zela esan zuenetik, egun

*"Historiak askotan ematen ditu bueltak, eta behin eta berriro gertaera batzuk errepikatu egiten dira. Hala ere badaude aukera batzuk historian zehar bakarrak direnak, inoiz berriro errepikatuko ez direnak"*

"nazionalistekin ez dela bakerik izango" esateraino? Falazia mota guztien eredu sorta ederra filosofia ikasten dutenentzat!

Lehen ETAre indarkeria zen arazoa; geroxeago, ETAk su-etena iragarri zuenetik, kale borroka; eta gaur egun, kale borrokarik ez dagoenez, alderdi abertzaleei botoa ematea. Lehen joko demokratikoaren arauak errespetatzen ez zirelako, orain joko demokratiko horretan sartzen garelako.

Aurrikusi al zuen hau guztia Espainako gobernuak Alternatiba Demokratikoa delako bideoa debekatu zuenean? Zein zen Mahai Nazionala kartzelaratzearen azken helburua? Herri Bata-suna desegituratzea ala martxan zegoen prozesu hau geldiaraztea?

Lizarra-Garazi ostean su-etenaren berri izan nuenean, harriduratik esnatu nintzenean, Euskal herri honek mirariak sortzeko gaitasuna duela bururatu zitzaidan. Eta handik hona ia eguneroko egunkari eta irrati albisteetan egiaz-tatzeko aukera izaten dut. Aznarrek eta Mayorrek susmo bera dutela üste dut. Ni baino lehenago konturatu dira, eta horrek kezkatzen ditu, ez beste ezerk. **B**

■ barruan



**Markos Gabilondo**

Begarara Plataformakoa

*"Jose Mari Etxanizen egoera salatu nahi dugu Auzitegi Konstituzionalean"*

8.



**J. Mari Aranburu**

Futboleko entrenatzailea

*"Taldearen lorpenak baino gehiago baloratzen dut jokalarien gizatasuna"*

38.



**I. Saez de Maturana**

Arrasateko Motozale Elkartekoa

*"Honda VFR 750 daukat eta urtean 15.000 kilometro inguru egiten ditudut"*

45.



## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1892.** Ekainaren 9tik aurrera Tavexeko emakumeak gizonezkoak baino 5 minutu lehenago irteten hasi ziren. Neurri hau, emakumezkoak eta gizonezkoak elkarrekin ez irteteko hartu zuen zuzendaritzak, "moral eta zuzentasun" kontuengatik.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1782.** Ekainaren 6an Mogel idazlea jaio zen Azkoitian.

**1899.** Ekainaren 4an El Correo Vasco lehenengo egunkari abertzalea jaio zen Bilbon.

**1936.** Ekainaren 3an Txirrita bertsolaria hil zen Altzan.

**1979.** Ekainaren 3an manifestazio antinuklearrean ari zelarik, Tuteran Gladys del Estal hil zuen Goardia Zibilak.

### MUNDUAN GERTATUA

**1908.** Ekainaren 2an emakumezkoak zezenak txuliatzea debekatu zen.

## zozketak

#### BONO LOTO

##### Eguakitza 28

2-17-25-35-37-48 (osag.31/itz.7)

##### Astelehena 31

4-13-14-26-28-45 (osag.42/itz.5)

##### Martitzena 1

2-3-13-40-44-48 (osag.8/itz.1)

##### Eguaztena 2

1-4-6-10-32-47 (osag.45/itz.6)

#### PRIMITIVA

##### Zapatua 29

6-15-30-33-42-46 (osag.24/itz.8)

##### Domeka 30 Saritzarra

5-13-14-20-25-46 (osag.28/itz.0)

#### ONCE

**Eguakitza 28:** 44.823 (010 seriea)

**Astelehena 31:** 82.669

**Martitzena 1:** 69.757

**Eguaztena 2:** 55.509

#### BESTE BATZUK

**EHeren zozketa. Afaría lau**

lagunendako: 947





### Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zapatuan hodeiak eta urdingu-neak tartekatuko dira baina, oro har, eguraldi eguzkitsua izango dugu, ostarte zabalak izango dira eta. Domekan, berriz, hodeiak nagusituko dira eta euria egin dezake han hemenka.

### Ilargiaren aldiak

-  Ilbete: maiatzak 30
-  Ilbehera: ekainak 7
-  Ilberri: ekainak 13
-  Ilgora: ekainak 20

### Eguzkia

Domeka, ekainak 6



Sortu: 06:47



Gorde: 21:44

### Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 27</b>	28	14	-
<b>Eguakitza 28</b>	31	12	-
<b>Zapatua 29</b>	29	15	-
<b>Domeka 30</b>	28	10	0,7
<b>Astelehena 31</b>	32	14	11,2
<b>Martitzena 1</b>	29	15	19,3
<b>Eguaztena 2</b>	23	14	-

## bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



### Asentzio bedar

Kirtena eta lorak zurixkak dituen landarea. Infusioan hartuta, jateko gogoa egiteko eta bizixoak akabatzeko erabiltzen da. Kutunaren barruan joan ohi den belarretariko bat.

## Farmaziak

### Eguakitza 4:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

### Zapatua 5:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Domeka 6:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

### Astelehena 7:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

### Martitzena 8:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

### Eguaztena 9:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

### Eguena 10:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

## Ogia

Domeka 6: Konde.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

### GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85



# zorion agurrak



**Iker Ruiz De Larramendi**  
Ekainaren 6an  
3 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Imanol Olabarria**  
Ekainaren 8an  
8 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Nerea Agirre**  
Ekainaren 8an  
7 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Unai.



**Oihana Alzelai**  
Ekainaren 8an  
6 urte. Urte askotarako!  
Familiakoak eta Amaia.



**Nahia Fernandez**  
Ekainaren 5ean  
5 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Maier.



**Lorea Franco**  
Ekainaren 7an  
5 urte. Urte askotarako eta muxu bat!  
Gurasoak eta Asier.



**Yaiza Plazas**  
Ekainaren 5ean  
7 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Joane Amosorrain**  
Ekainaren 5ean  
7 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Kepa Valera**  
Ekainaren 6an  
14 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Sonia.



**Naiara Ignacio**  
Ekainaren 9an  
12 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Miren.

MEZA

## Jose Joakin Gabilondo Mekolalde

Bere oroimenezko meza domekan, ekainak 6, goizeko 11:30etan, Elosun.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## hildakoak

### ANTZUOLA

#### Francisca Zubillaga Leunda

Ekainak 4, 84 urte

*Datorren asteko alean*  
**EKAINAREN 11 eta 17a**  
*bitartekoen zorion agurrak argitaratuko dira.*

## jaiotakoak

### BERGARA

#### Lander Barcala Rodriguez

Maiatzak 20

#### Antxon Lazpiur Jauregi

Maiatzak 23

#### Aitor Rueda Taboada

Maiatzak 29

## mezak

#### Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:30.

#### San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

#### Osintxu

Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.

#### Elosu

Domekak: 10:00.  
Ubera Domekak: 10:30.  
San Juan Domekak: 11:00.

#### Basalgo

Domekak: 13:00.  
San Prudentzio Domekak: 10:30.  
Labegarieta Domekak: 11:00.

#### San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.  
Angiozar Domekak: 10:30.  
Eguakitza: 19:00.

#### Monja Zaharrak

Domekak: 19:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

#### Mizpirualde

Domekak: 11:45.  
Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

#### Mariaren

Lagundia Domekak: 10:00.  
Zapatuak eta lanegunak: 09:00.

#### Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.  
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

#### Uzarraga

Domeka: 10:00.

## PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30\*, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05\*, 21:35\* (\*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

**Oñati-Bergara.** Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

**Bergara-Eibar.** Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

#### Eibar-Bergara.

Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

#### Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

#### Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

#### Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

#### Donostia-Bergara (Tolosatik).

Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

#### Bergara-Bilbo.

Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

#### Bilbo-Bergara.

Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

## Ospakizun masokista

Malasiako Batu kobazuloetan urtero egin ohi da Thaipusam izeneko ospakizuna Subramanian jainko hinduaren ohoretan. Partehartzaileek era guztietako torturak egiten dizkiete beren buruari. Hamairu kilometro luze dituen prozesio batekin ematen diote amaiera ospakizunari, penitenteek mota guztietako objektu ziztatzaileak sartzen dituztela.

## hamaika ikusteko jaio ginen!



## ANTZERKIA

► **Yllana taldearen "666"** antzezlan bihar, zapatua, 22:30etan Arrasateko Amaia antzokian.

► **Takolo, Pirritx eta Porrotx** pailazoak bihar, zapatua, 16:30etan eta 18:30etan emanaldiak Eibarko Unibertsitateko aretoan.

## MUSIKA

► **Nuevo Catecismo Catolico, Señor No eta Factoria 77** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

► **Mondragon Camerata Orkestra** taldea bihar, zapatua, 20:00etan Arrasateko San Frantziskoren elizan.

## ERAKUSKETAK

► **Javier Garciaren margo erakusketa** Kultur Etxean, ekainaren 14ra bitartean.

► **Azur-en argazkiak, oleoak eta eskulanak** Nahikari tabernan.

## LEHIAKETAK

► **Kirol argazkien IX. Lehiaketa.** Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak Udaleko Kirol Zerbitzuan jasoko dira ekainaren 23ra arte. Kategoría

## ANTZERKIA

### No hay huevos

**Non:** Novedades aretoan  
**Noiz:** zapatuan 22:30etan  
**Sarrera:** 800 pezeta, 600 pezeta 26urteetik beherakoentzat

Sobradun antzerki talde gasteiztarrak "No hay huevos" euren hirugarren eta azken lana eskainiko du bihar Bergaran. "Herminio y Miguelito" eta "30 millones de gilipollas" aurreko lanekin (gure herrian antzetzutakoak biak) arrakasta nabarmena lortu zuten eta, berriz ere, umore garratzari heldu dote egungo gizarteko hainbat gairi errepasoa emateko. "No hay huevos" joan zen urtarrilean estreinatu zen Gasteizen eta kritikak zein publikoak harrera ona eskaini dio Eloi Beatok zuzendutako lanari. Eskenatokian, Gorka Aginagalde, Ion Gabella eta Iñaki Rodaballo aktore hirukotea ikusteko aukera izango dugu berriz. Gidoia Mauro Entrialgo eta Eloi Beatok berak eginikoa da eta artista bat (Aginagalde) eta

seguru saltzaile baten (Rodaballo) arteko harremana kontatzen zaigu bertan. Biak pisua konpartitzera behartuta egongo dira; langabezian dagoen artistaren lehengusu bat (Gabella) ere sarritan egongo da beraiekin pisuan eta hiruren artean gatazkak azalduko dira behin eta berriz. Bide batez, kultura ofiziala, sexuen arteko harremanak, monarkia, drogak edota ospetsuen inguruko komentarioak egingo dituzte protagonistek.

Eloi Beato zuzendariaren arabera, "azken lan honekin trilogia bat osatu nahi izan dugu, aurreko lanetan ere kritika soziala jorratu baitugu umorearen bitartez. Jendeak berehala identifikatu ditzakeen pertsonaiak dira eta horrek ikusleengana heltzeko bidea erraztu egiten digu".



Gorka Aginagalde, Iñaki Rodaballo eta Ion Gabella aktoreak.

bakoitzeko onenentzat sariak izango dira. 943 76 30 90.

## DEIAK

► **Herri afaria Seminarioan EHK antolatuta** gaur, eguakitzan, 21:30etan. Bihar, zapatua,

berriz, **mendi irteera** 10:00etan San Martin plazatik irtenda eta arratsalde partean herriko kultur kolektiboen jarduerak. Ekainaren 11n, eguakitzan, **mitina** San Martin plazan 19:30etan: Mila Idiakez, Balentin Gabilondo eta Jesus Mari Garitano. Era berean,

preso, errefuxiatu eta hauen senideei omenaldia eskainiko zaie.

► **Mariaren Lagundiko jaiak** domekan, hilak 6. Goizeko 10:30etatik kirol txapelketak, 12:00etan umeen parkea, 12:30etan Musika Eskolako

**A  
R  
R  
A  
N  
O**

**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**ANTIA**  
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

**CAMACHO**  
Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA  
☎ 943 76 13 35

**GURIA**  
**Taberna**

Bidekurutzeta 5  
☎ 943 76 20 34



Bandaren kontzertua, ordubatean paellen lehiaketa, 16:30etan kukinak eta marrazki lehiaketa, 17:00etan gimnasia erritmikoa, 18:15etan sari banaketa eta 19:00etan dantzaldia.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, ekainak 9, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **San Joxepe. "Donostia ezagutuz"** programa datorren astean: astelehenean, 17:30etan, Donostiari buruzko hitzaldia izango da elkartean eta martitzen eta eguaztenerako Donostiara joateko irteerak antolatu dira, 9:00etan. Izen-ematea astelehenera arte zabalik. 943 76 21 40.

► **Hitzaldi-dastaketa Gure Ametsa elkartean** ekainaren 17an, 19:30etan: Domingo Merino Diputazioko teknikariak eta Arkaitz Garcia nekazariak labeldun tomatea eta piparrari buruz jardungo dute eta jarraian **Zenaurin egiten den Bertoko garagardoaren aurkezpena** egingo du Karlos Foruriak. Ondorengo afarirako izen-ematea (2.500 pezeta) ekainaren 14ra arte zabalik.

► **Mendi irteera** ekainaren 19an eta 20an Guadarramara, Alpino Gorkak eta Pol-Polek antolatuta. Txartelak Pol-Poleko bulegoan, ekainaren 10era arte. 943 76 48 51.

► **Udal igerilekuak** itxita izango dira bihar, hilak 5, 13:30etatik aurrera, bertan

Deba Garaiko Eskolarteko X. Olinpiada izango delako.

► **Industri birmoldaketak** afektaturikoen bilera eguenean, hilak 10, 17:00etan Kultur Etxean. 35 urtetik gora kotizatu dutenei eta alargunei bertara joateko deia egiten zaie.

► **Musika Eskolako ikasle-  
en udaberriko kontzertua** ekainaren 13an, 12:30etan Udal Pilotalekuan. Ondorengo herri-bazkarirako txartelak (2.200 pezeta helduak, 1.600 gaztetxoak) Musika Eskolan salgai, astebarruan 17:00etatik 21:00etara.

► **Senidearteko XIV. Topaketak** Arrasateko Aita Menni ospitalean domekan, hilak 6, 10:30etatik aurrera. Bertako harrera gelan "Pirinioak" izenburuko argazki erakusketa ikusgai ziango da ekainaren 14ra bitartean.

► **Bedelkarrek Veneziaara bi pertsonendako bidai**a zozketatuko du ekainaren 26an. Irabazleak bi gaueko hotela, gondolan paseoa eta 100.000 pezeta gastuetarako eskuratuko ditu. Bedelkarreko dendetan erosketak egiteagatik boletok banatzen ari dira.

## KINTADAK

► **1958an jaiotako en afaria** ekainaren 12an, 21:30etan Antxonin jatetxean. Izen-ematea Antxonin bertan edo Intxorta tabernan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### Asesinato en 8 mm.

Eguakitza: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

##### Yerma

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### La trampa

Eguakitza: 21:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Aun se lo que hicisteis el ultimo verano

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena: 19:30, 22:15.  
Eguaztrena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Todo sobre mi madre

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

##### High art

Eguena, zine-kluba: 20:15.

#### AZKOITIA. Baztartxo

##### Los herederos

Eguakitza: 22:00.  
**La vida es bella**  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

#### OÑATI. Santana

##### No mires atras

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

### ASESINATO EN 8 MM.

**Zuzendaria:** Joel Schumacher.

**Aktoreak:** Nicolas Cage, Joaquín Phoenix, James Gandolfini.

Seven-filmeko gidoilariaren istorio honetan *Tom Welles* (Nicolas Cage) detektibearen gorabeherak kontatzen zaizkigu. Konplikaziorik gabeko kasuak ikertzea da *Welles* en lana, bere eskutara 8 mm.ko pelikula bat heltzen den arte. Liburu-saltzaile baten laguntzaz, filme ikaragarri horien atzetik nortzuk dauden jakin nahi izango du...

### YERMA

**Zuzendaria:** Pilar Tavora.

**Aktoreak:** Aitana Sanchez-Gijón, Juan Diego, Irene Papas.

Federico Garcia Lorcaen klasikoan oinarritutako filmea errodatu du Pilar Tavora zuzendariak. *Yermak* (Aitana Sanchez Gijón) seme-alaba bat izan nahi du baina *Juan* bere senarra (Juan Diego) pasiorik gabeko gizona da. Ohoreak ez dio *Victorengana* joaten uzten baina erromerian *Yermak* errealitateari aurre egingo dio.



BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.

Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!  
Zator eta informa zaitetz!

**LARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63



**Joan zen urtean sortutako Bergarara Plataformak Auzitegi Konstituzionalera eraman du Jose Mari Etxaniz bergarar presoaren kasua. Plataforma honek zigorraren hiru laurdenak beteta dituzten herriko presoen askatasuna aldarrikatzen du. Etxanizen egoera berean Maria Eugenia Gracia dago gaur egun.**

MARKOS GABILONDO  
Bergarara Plataformako kidea

*“Jose Mari Etxanizen egoera salatu nahi dugu Auzitegi Konstituzionalean”*



Markos Gabilondo, artxiboko argazkian.

**G.** Zela sortu zen Bergarara Plataforma?

**E.** Etxaniz Plataforma izenarekin sortu zen, iazko martxoan. Gure helburua zigorraren hiru laurdenak bete dituzten presoek askatasuna aldarrikatzea da. Jose Mari Etxanizen kasuaz gain, Maria Eugenia Gracia eta Iñaki Arenaza (dagoeneko kalean dagoena) presoek egoera salatu izan dugu.

**G.** Zergatik erabaki duzue Etxanizen kasua Konstituzionalera eramatea?

**E.** Otsailaren 19an 19 urte bete zituen Etxanizek kartzelan eta dagoeneko kalean egon beharko luke. Bere kasuaren dossiera Jaurlaritzako Giza Eskubideen Batzordean, Amnesty International erakundearen, Madrilgo Entzutegian, Udaletxean eta beste hainbat lekutan aurkeztu dugu, Herriaren Defendatzaileari ere aurkeztu diogu, Madrilen. Azken honek kasua epaitegien kompetentzia zela erantzun zigun baina kontua da Auzitegi Gorenak ere ez duela legea betetzen.

Cadizeko Auzitegiaren Probintzian bi epaiketa izan dira, Etxanizi aplikatu beharreko erredentzioak (ikasketak, kirola, portaera eta abar direla eta) direla eta. Kontua da han ere kartzela zigorra laburtzea ez zegoela esan zutela eta horren aurrean Etxanizen

abokatuek (Txema Matanzas eta bere lankideek) Auzitegi Gorenera jotzea erabaki zuten. Sententzia mantentzeki eutsi zion Auzitegi Gorenak eta, beraz, Auzitegi Kontsuzionalera jotzea erabaki genuen.

**G.** Zeintzuk dira bertara jotzeko argumentuak?

**E.** Etxanizen kasuarekin ematen ari den egoera sala-

tu nahi dugu, turko-burutzat hartu baitute. Erredentzioak kodigo zaharrean zein berrian jasotzen dira eta Etxanizi ez dizkiote aplikatu nahi. Berak bete du bere zigorra eta kanpoan egon nahi du baina ez du burua makurtzerik nahi, ez du eskaini izan dizkioten beste neurri batzuk onartzerik nahi eta hori dela eta trabak jartzen dizkiote behin eta berriz. Kodigo penal berria aplikatzeko egin zuen eskaera ere erretentitu egin zioten kartzelan eta ez zen garaiz heldu bere tokira. Etxanizen espedientearen ez dago hilketarik eta zigorra beteta dauka dagoeneko.

**G.** Zelako erantzuna emango duela uste duzue Konstituzionalak?

**E.** Momentuz, kasua aurkeztu dugu baina ez dakigu onartuko duten ala ez. Gure ustez, Etxanizekin inkonstituzionalitate kasu argia ematen ari da eta itxaropena galdu ez dugunez, lehenbailehen kalean ikusi nahi dugu. Bere kasuaren ematen ari diren irregulartasunak salatu nahi ditugu, dispersioa bera inkonstituzionala baita. Dena den, horrelako prozesuak luzeak izaten dira eta ziurrenik irailera arte-edo ez digute inolako erantzunik emango.

**G.** Etxaniz bera zela dago?

**E.** Ondo, itxaropentsu. Laister irteteko itxaropena ez du galtzen eta buru-belarri ari da bere kasuarekin; zuzenbide ikasketak egiten dihardu eta abokatuekin ari da irtenbideak aztertzen. Maria Eugenia ere ondo aurkitzen da eta esan behar da bere kasuarekin Etxanizekin egindako jentio guztiak egingo ditugula. Legealdia amaitu baino lehen bere kasuari buruzko mozioa Udaletxean aztertu nahi dugu. **B**

***“Kodigo penaleko erredentzioak ez dizkiote aplikatu nahi, turko-burutzat hartu dute. Behin eta berriz trabak jartzen dizkiote”***



# Basalgon hasi dira eraikitzen Eibar-Gasteiz autopistaren lehen zatia

Bergara eta Maltzaga arteko zatia 2002. urtean zabalduko da

**Eibar-Gasteiz autopistaren lehenengo harria jarri zuten joan zen egue-  
nean Basalgo auzoan Jaurilaritzako, Gipuzkoako Diputazioko eta Bergarako Udaleko agintariek. 100.000 milioiko aurrekontua duen autopistaren lehen zatia, Bergara eta Maltzaga artekoa, 2002. urtean zabalduko da.**

A-1 izenarekin ezagutuko dugun autopista osoa, 46,2 kilometroko luzerakoa (39,9 kilometro Gipuzkoan eta 14,3 Araban), 2004. urterako amaituta egotea espero da. Obrak Basalgo auzoan hasi dituzte, galeperren haztegitik gertu dagoen lautadan. Bergarako iparraldea eta Eibar arteko zatiak 8 kilometroko luzera izango du eta aurrekontua 25.000 milioi pezetakoa da.

Esan behar da autopista osoa hiru zatitan banatu dutela eta obrak epeka egingo direla. Lehen zatia beste hi-



Agintariek Eibar-Gasteiz autopistaren lehen harria jarri zuten.

ru zatitan banatu dute: Bergara hegoaldea-Bergara iparraldea, Bergara iparraldea-Soraluze eta Soraluze-Maltzaga. Joan zen astean Bergara iparraldea eta Soraluze artekoa hasi zuten. 5 kilometroko luzerako zatiaren lanak 9.833 milioi pezetan adjudikatu ditu Gipuzkoako Diputazioak. Moyua, Mu-

rias, Altuna y Uria eta Galdiano eraikuntza enpresek hartu dute obra honen ardura. Ondoren, Soraluze eta Maltzaga arteko 3 kilometroko luzerako zatia eraikiko dute eta hau amaitu ostean, Bergara iparraldea eta hegoaldea lotuko dira, guztira 3,5 kilometro.

## AHALEGIN BEREZIA

Joan zen egueneko inaugurazio ekitaldian, hainbat agintariek hartu zuten parte. Agintariei harrera egin eta aureskua dantzatu eta gero, lehen harria jarri zuten.

Ondoren, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, Roman Sudupe Gipuzkoako Aldun Nagusiak eta Antton Jaime Errepideetako diputatuak hitz egin zuten. Obra hau eraikitzeko Gipuzkoako Diputazioa ahalegin handia egiten ari dela esan

zuen Roman Sudupek eta gaineratu zuen Diputazioak bakarrik ezin izango diola aurre egin aurrekontuari.

Honenbestez, Eusko Jaurilaritza autopistaren finantziazioan inplikatu dadila eskatu zion Lehendakariari eta, bestalde, autopista erabiltzeko gidariek ordaindu egin beharko zutela adierazi zuen. Kontu honen inguruan, peaje biguna ezarriko dela azpimarratu zuen Antton Jaime Errepideetako diputatuak.

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, ondoren, obraren garrantzia azpimarratu zuen eta Jaurilaritzak ahal duen neurrian lagunduko duela esan zuen. Bestalde, Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde publiko ezberdinen arteko elkarlana eta harremanak bultzatzearen alde agertu zen. **B**



Antton Jaime eta Roman Sudupe, Lehendakariaren alboetan.





Artxiboko argazkián, Bergaran soldaduzkaren aurka eta intsumisioaren alde antolatutako kontzentrazio bat.

# Intsumisioari buruzko hiru mozio onartu ditu Udalbatzak

## EAK eta HBk bat egin zuten legealdiko azken Plenoan

**HBk eta EAK** intsumisioari buruz aurkeztutako hiru mozio onartu zituen Udalbatzak joan zen eguaitzean HB eta EAren aldeko eta EAJren ezezeko botoekin; Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotzia ez zen Plenoan izan.

Alde batetik, enplegu eskaintza publikoetan ateratzen diren plazak betetzeko oinarrietan, intsumisioari buruzko aipamenik ez egitea onartu zen; bestalde,

aurtengo udal aurrekontuetan aldaketa bat egitea, Eudima intsumisioaren udal elkartearen kide izateagatik, Bergarako Udalari dagokion kuota (252.000 pezeta inguru) ordaindu ahal izateko. Azkenik, intsumisioaren elkartasuna adieraztea, espainiar armadarekin ez kolaboratzea, intsumisioei ezartzen zaizkien inhabilitazio zigorrak salatzea eta intsumisioaren despenalizazioa eskatzea.

Boto esplikazioan, Mikel Eguren (HB) gogora ekarri zuen Bergarako Udala Eudiman sartzea, ejerzitorekin ez kolaboratzea eta intsumisioak ez inhabilitatzea onartu zuela Udalbatzak eta alkateari gogorarazi zion hartutako erabakiak betearaztea zela bere ardurara. Alkateak erantzun zion, Eudima legezkatuta dagoela ziurtatzen duen agiririk ez dagoenez, ez zaizkiola kuota ordaindu.

## Bideberrin jausitako gaztea osasun egoera hobean

**Pazkuetan** Bideberritik errekarra jausi zen Raul Luque 18 urteko gazteak hobera egin du eta jadanik ez dago koma egoeran, osasun egoera larrian dagoen arren. Domekan irten zen komatik eta eguaztenez bere familiarekin ezagutu zituen. Hasiera batean gorputzeko atalak ez zituela mugitzen uste bazen ere, bai hankak eta baita besoak eta eskuak ere mugitzen ditu. Halere, buruan kolpe gogorra du eta gurezurra apurtuta du. Medikuek, familiarekin eta lagunak, baina, itxaropentsu daude.

## Gazte lokalaren aldeko proiektua Udaletxera

Gazte lokalaren aldeko plataformako kideek Bergaran gazteentzako gune autogestionatu baten aldeko proiektua aurkeztuko dute datorren eguaztenez Udaletxean. Era berean, gaiaren inguruan egin berri duten inkestaren emaitzak azalduko dituzte.

**Usoa Pub**



☎ 943 76 38 57  
Irala 1

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

**Deco-Textil  
ZANGITU**

Etzerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta  
ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, eta abar.

**Herrilagunak 3-5**  
☎ 943 76 08 69



# Karitatearen eguna antolatu du domekarako Bergarako Caritasek

"Izan eskuzabal" lelopean, diru batzea egingo da parroketan

**"Izan eskuzabal. Zure elkartasuna haien aho-tsa" lelopean, justiziarren aldeko karitatearen eguna ospatuko du domekan Caritasek. Behartsuei diruz lagunduz edota arazoarekiko konpromisoa hartuz laguntzea proposatzen du oraingoan Caritasek.**

Bakoitzaren ahalegina beste askorenarekin elkartuz, gauzak aldatzen joan daitezkeela dio Arantza Odriozola Caritaseko kidea. Horregatik, euren aisialdia eta gogo behartsuei laguntzen emateko animatu nahi ditu gaiarekin ardurata daudenak. Caritasek diru bilketa egingo du domekan herriko parroketan. Horrez gain, noizbehinka edo maiztasun jakin batean, diruz lagundu nahi dutenentzat kontu korrante zenbakia zabaldu du Caritasek, honako hau da kontua: 2101 007 083 0010444586.

## BESTE HAINBAT JARDUERA

Domeka honetarako antolatu duen kanpainaz gain, beste hainbat jarduera egi-



Besteak beste, premiak dituzten familiei laguntzea da Caritasek helburua.

ten du Caritasek urtean zehar Bergaran, Antzuolan eta Elgetan. Parrokia bakoitzeko lokaletara inguratzen den edozein atenditzen dute. Bestalde, premiazko beharrak dutenei, dirulaguntzak, janaria edota etxebizitza eskaintzen zaizkie. Arropa banaketa ere egiten da Bergarako Sierbetako lokaletan; ikasteko laguntza be-

har duten haurrentzat eta etxean egoera ekonomiko eskasa dutenentzat ere laguntzak banatzen dituzte eta baita bilera bereziak antolatuta ere.

Horrez gain, parrokiako Caritaseko boluntarioentzat formazio ikastaroak antolatzen dituzte, marjinazio psikologikoari edo beste gai batzuei buruzkoak.

## 50 BOLUNTARIO

Bergara eta inguruan 50 bat boluntariok lan egiten du Caritasek. Batik bat, honako hauei laguntzen die Caritasek: larrialdi egoeretan daudenei, emakume bananduei, gaisotasun larriak dituztenei, drogomenpekotasuna dutenei edota duintasunez bizitzeko besteko diru-sarrerarik ez dutenei.

## BOST MILIOI PEZETATIK GORA

Diru kontuei dagokienez, 1997ko abendutik 1998ko abendura arte 5.403.550 pezeta jaso dituzte. Zatiirik handiena, Antzuola, Angiozar, San Pedro, Santa Marina, Elgeta, Elosua, Osintxu eta Elorregiko parroketan batu dute; arropa tailerraren bidez, ostera, 245.000 pezeta batu dituzte.

Gastuak, bestalde, 5.791.934 pezetakoak izan dira. Zatiirik handiena laguntza premia duten familiei laguntzen eta arropa zerbitzuan gastatu dute.

Esan behar da, bukatzeko, Bergara eta inguruan, 57 familia atenditu dituztela caritasekoek, guztira 230 lagun. **B**

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**Carmen Garate**

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23

PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g ☎ 943 76 07 92



# Berrigara

370 zenbakia.  
1999ko ekainaren 4a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefona: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkarte**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpideta:** Itziar Kortabarria.

**Testuen zuzenketak:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Mariji Laskurain.

**Erredakzio kontseilua:**  
Miguel Angel Elkorobereizbar, Alex Labaien, Gorka Elortza.

**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugaldes, Unai Azkarate.

**Kolaboratzaileak:**  
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.


**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



## gutunak

*Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### PRESOEN ALDEKO ITXIALDIAK

Dagoeneko hamabi urte dira dispersioa hasi zenetik. Urte hauetan guztietan gure herriko presoek mehatxuak, isolamenduak, palizak, torturak, traslodoak..., jasan izan dituzte espainiar estatuko espetxeetan.

Dispersioa ez da presoetara soilik mugatzen, beraiek ikustera joaten diren senide eta lagunek komunikazio falta, katxeoak, bisiten ukazioa, hainbat istripu errepidean, sekulako gastuak..., astebukaerero jasaten dituzte.

Badira zortzi hilabete ETA erakunde armatuak tregua iragarri zuela, baina estatu espainiarrak ez du asmorik agertu gure presoen eskubideak betetzeko. Aldiz errepresioa areagotu egin du.

Hau dena salatzeak, eta gure herriko presoen egoera larria dela ikusiz, Bergarako Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak, Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak eta Bergarara plataformak adierazi nahi dizuegu hainbat itxialdi aurrera eramateko asmoa dugula. Itxialdi hauek aitzinean aipatutako taldeek bultzatuak izango dira, edozein herritarri irekiak eta Bergarako udaletxean. Helburua ez da asteburu osoa udaletxean itxita egotea; are gehiago, presoak gogoratu itxialdiko partaideek herrian zehar ekitaldi desberdinak antolatzea posibilitoa izan daiteke.

Itxialdiak egingo diren egunak hauek dira: ekainak 4, 5, 6; ekainak 18, 19, 20 eta ekainak 25,

26, 27. Sarrera ostiralez enkartelada ondoren izango da (20:30ak aldean) eta irteera igande arratsaldeko 19:00ak inguruan (bakoitzak astebukaera batean parte hartuko luke).

Presoak Euskal Herriratzeko Euskal Herri osoaren nahiarekin bat egin eta parte hartu nahi duzuen guztiok Arrano tabernan izena eman dezakezue, zuen parte-hartzea eskertuko dugu. Animau zaitezte, presoek hau guztia eta gehiago merezi dute eta.

*Senideak*

*Presoak Euskal Herrira  
Begarara plataformara  
Amnistiaren Aldeko Batzordeak*

### EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA

Ukatu ezinezkoa da aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugula euskararen normalizazioan irakaskuntzaren arloan, eta denok ezagutzen ditugu. Begibistakoa da, era berean, gurasoen sentsibilizazioaren esparruan ere aitzinera egin dugula, gero eta guraso gehiago baitira beren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren hautua egiten dutenak. Baina ukatu ezinezkoa da, baita ere, hutsune handiak ditugula euskarazko irakaskuntzan eta orain hogeitau urte geneuzkan perspektibak ez direla bete.

Lehen hezkuntzari dagokionez, ereduaren sistema horrek itogin handiak ditu, A ereduak ez du euskalduntzen eta B eredu gehienek ere ez. Nola euskaldunduko

dute, D ereduak ikastetxeetan ere Normalizazioarako Plan Integralak edota Euskaraz Bizi bezalako egitasmoak martxan jarri beharra badago eskola hori euskaraz biziko bada, eta eskola horietako ikasleek euskara normaltasun eta jarioz hitz egingo badute. Badakigu eskolak soilik ezin duela euskararen normalizazioaren zama guztia jasan, eskolaz gain beste esparru asko daudela lan egin beharrekoak, baina badakigu, baita ere, eskolak garrantzi handia duela euskalduntzeko prozesuan. Eredue-na, beraz, osoki berplanteatu beharrekoa da eta ez adabakiak jarrezkoa, Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak A ereduarekin datorren ikasurterako egin behar duen bezala. Ezer esan beharrik ez dago G ereduaz, jakina, ezta Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondorengo irakaskuntzan dauzkagun arazo larriez ere, arazoak, bai material egokiaren aldetik, baita, eta nagusiki, irakasle asko dagoelako euskaraz ez dakiena.

Pisuzko gaia gogoetarako, eta ez da kasualitatea sortu berria den GUNEAk eztabaidarako lehenengo gai bezala horixe hautatu izana. Hau guztia kontuan hartuta, EHE, IA, Ikasbatuaz, LAB eta Sortzenek maiatzean zehar eta ekain bitartean antolatutako Euskal Irakaskuntzaren aldeko nazio ekimenetan parte hartzera gonbidatzen ditugu herritarrek, denon artean eraiki dezagun benetako Hezkuntza Sistema Euskalduna.

*Ikasbatuaz elkarte*

## tira biraka: unai azkarate





■ atrebentzia ezpada

## Azkenengo legealdixan udalak egindako ze aipatuko ziñuke eta ze uste dozu geratu dala egitteke?



**Luis Mari Ugarte**

Aparkaleku falta haundixa dago. Bestalde, kalietan egin daben lana ondo dago. Elbarrituak kalian eta etxietara sartzeko erreztasunak ipini dituztela ikusi dot.



**Maria Luisa Errasti**

Kanposantu ondoko aparkamentua berriztia ondo pentsatu jat. Errekia garbitzia eta Bideberri berriztu biharra dago horrenbeste jende jausi ez dadin.



**Antonio Rodriguez**

Poligonoko aparkalekua ondo iruditu zait eta jaietan zarata jaitsi egin dela uste dut. Dena dela, aparkalekuen beharrea gaude. Gai hau alde batera laga dute.



**Jose Maria Laskurain**

Herria orokorrian nahiko ondo ikusten dot. Dana dala, trafiko aldetik nahiko petral dago eta San Antonioko bidegurutzean adibidez, udaltzaina falta da.



**Amaia Bengoa**

Berdegunietan parke gehixago egon behar lieke. Bestalde, aparkaleku gehixago eta errekiak garbitzia komeni da. Hala ere, kaliak ondo laga dituzte.



**Begoña Garmendia**

Azken urtietan kale eta auzo konponketa asko egin dituzte. Umiendako jolas-tokixak hobeto zaindu eta asteburuan ekintza gehixago egon behar lieke.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943-76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

### LABEGARAIETAKO TXIMINIAK

**Luis Garciak** deitu zigun eguaztenean erre-dakziora, Labegarietako tximinien egoerarekin kezkatuta. Luis Garcia-ren arabera, Labegarietako tximinia handiak (gaur egun erabiltzen ez direnak) oso egoera kaskarrean daude eta, istripu larriren bat gertatu aurretik, Udalar horren aurrean neurriak hartzeko eskatu nahi dio.

Haize bolada indartsuak izaten direnean, tximiniak jausteko beldurrez egoten omen dira Labegarietako auzotarrak eta, beraz, zerbait egin beharra dagoela uste du Luis Garciak. Nahiz eta balio historikoa izan, herritarren segurtasuna garrantzitsuagoa dela dio Luisek eta komeni dela arazo hori konpontzea.

■ ikuspuntua: **juan antonio migura**

## Lau aukera, gehi bat



Hauteskunde kanpainako mezu errepikakorrak gorabehera, ez dirudi ekainaren 13ko hautagaiek herritarren borondatea benetan ordezkatzeko dutenik. Alderdi bakoi-tzaren aparatoak ez die hautagaiei manio-bratzeko aukera handirik ematen, edo beste barik hautatuek ez diote buruzagiari "ez" esan nahi, eta horren ordez "amen-amen" egitea nahiago dute.

Zerrenda irekien ordez, alderdikako zerrendatan oinarritutako gaur egun erabiltzen den sistemak eskaintzen digun errealitate gordin hori alde batera lagata, alderdi politikoei gutxieneko konfidantza bat eman behar zaiela uste dut. Bergarako kasuan, lau gehi bat dira. Alde batetik, EAJ-EA, EH, PSE eta EB alderdiak, eta, bestetik, PP. Azken alderdi hau aparte aipatzen dugu ez duelako hautagai bergararra aurkezteko ausardiarik izan.

Herritarren arteko hurbiltasun eta eza-gutza dela eta, zerrendaburuaren figura da zerrenda irekien antz handiena duen sistema; baina PP alderdiari hautagai ezezagun bat aurkeztea baino gauza hoberik ez zaio bururatu. Beraz, argi dago ekainaren 13an ez dela alkatea hautatuko, alderdi politikoak baizik. Eta horrek balio du bestealdekoentzat ere, egunerokotasunean sartu ondoren ahaztu egiten baitzaie aurretik emandako hitza.

Ondorioa, alderdien aparatoek herriko bizilagunen eguneroko premiak ulertzen ez dituzten zapalgailu gisa funtzionatzen dutela. **B**





# Miguel ALTUNA institutua

## 1999/2000 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-ESKAINTZA

### GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena

### ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

**Aurrematrikula epea ZABALIK:** ekainaren 1etik 9ra

**Ohiko matrikula epea:** uztailaren 1etik 9ra

#### HELBIDEA:

Miguel Altuna Institutua

Ibargarai 1

Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40

**Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak**

**Behar diren baliabideekin**

**Bide eta ate guztiak**

**zabaltzen dituen ikasketak**

**Eskola publikoa: integratzailea eta anitza**

*Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu*

## ALDATZE

Batxilergoa  
(16-18 urte)



## HASI ETA HEZI, GUREKIN

FAKULTATE, ESKOLA  
UNIBERTSITARIO eta  
2. mailako LANBIDE-HEZIKETA  
ZIKLO-etara sartzeko  
PRESTAKUNTZA IBILBIDE  
APROPOSAK

- \* Jantoki zerbitzua
- \* Neska-mutilei eskainia
- \* Ekintza osagarriekin borobildua

Aldatze kalea 5 EIBAR ☎ 943 70 11 50 Faxa 943 70 13 04







## Ingalaterratik bueltan

**Mikel Almortza eta Fran Blanco, Miguel Altuna** institutuko ikasleak **Ingalaterratik** itzuli berri dira. Goi mailako ziklo elektrikoa burutu ondoren, biek Ingalaterran praktikak egiteko aukera izan dute, Confebaskek bultzatutako **Leonardo Da Vinci** programako bekei esker. Horrela, azken 10 asteotan Londresen izan dira; Fran Blanco Killby & Gayford Group izeneko enpresan izan da praktketan eta Mikel A.W. Winsor elektrizitate enpresan. Euskal Herritik 8 lagun joan ziren Ingalaterrara eta Mikelek eta Franek esperientzia aberasgarria gertatu zaiela adierazi digute. Londreseko egonaldian jamaikar batzuekin bizi izan dira biak eta ondo moldatu dira beraiekin. Itxura denez, jamaikarren ingeles azentoa ere bereganatu dute... Argazkietan bergarar biko-tea hango familiarekin eta **Marisa** jamaikar neskaekin.

## 1960an jaiotakoak

Duela aste batzuk, maiatzaren 8an hain zuzen ere, **1960an jaiotako bergararrek afaria** izan zuten herriko jatetxe ezagun batean. Deialdiak izugarritzko arrakasta izan zuen, guztira **63 lagun** elkartu baitziren (argazkiaren kopiak Kiñun jaso daitezke). Eskola garaietatik biltzen ziren lehen aldian zen eta giroa primerakoa izan zuten. Afalostean dantzaldia izan zuten, baina, antza denez, gizonezkoak lotsati samar ibili ziren neskak dantzara ateratzeko orduan. Hori esan digute behintzat. Hurrengo urtean berriz biltzeko geratu direnez, ea orduko dantza ikastaroren baten ematen duten izena...



## ETBko kamarak Mariaren Lagundiko elizan

**Mariaren Lagundia** ikastetxearen sorreraren **200. urteurrena** dela eta, **Euskal Telebistako kamarak** bertako elizan izango dira bihar, hilak 5, eta datorren zapatuan, ekainak 12. ETBk 20:30etako meza grabatuko du bi astetan jarraian Mariaren Lagundiko elizan eta ekainaren 6an eta 13an goizez emango dira bezperako grabazioak, 10:30etan. Biharko meza Donostiako San Vicenteko parrokiara dagoen **Felix Garitano** bergararrak emango du eta datorren asteko **Xabier Zubizarreta** Santa Marinako parroko ohiak. Mariaren Lagundiko zuzendaritzak bergararrei meza horietara joateko gonbidapena luzatu nahi die.





■ asteko menua: **artekale pizzeria-jatetxea**

## Tomate entsalada italiarra



LUIS ANGEL SANTIAGO

Artekale pizzeria-jatetxeko sukaldaria

### OSAGIAK (2 lagunentzat)

- 4 tomate heldu fresko
- 6 antxoilla
- 100 gramo gazta fresko
- Albahaka freskoa
- Oliba olio
- Ozpin aromatiko
- Gatza

### PRESTAKETA

- Tomate zerrak egin eta ontzi zabal batean txukun-txukun ipini.
- Antxoak eta gazta zatitu eta tomateen gainean jarri.
- Bukatzeko, ozpin, olio, gatz eta albahaka txikituarekin maneatu.
- Mahaira atera aurretik, 30 minutuz beratzen eduki.

■ adituen esanetan

## Esklerosi anizkuna

ITZIAR RICO, *medikua*

Esklerosi anizkunak nerbio sistema-ri eragiten dio. Nahiz eta sortzeko aukera egon, nerbio inpultsoak ezin dira transmititu eta afektatutako zonaren arabera, sintomak aldatzen joaten dira. Gaisotasunak agerraldiak izaten ditu eta sintomak oraindik ere ez dira argiak: hanketan indarra galtzea, inurridurak, bista galtzea, bista bikoitza zenbaitetan... Egun batzuk irauten dute eta gero desagertu egiten dira sintomak.

Dena den, gaisotasunak arrastoak lagatzen ditu, indar falta eta sentsibilitatearen alterazioak esate baterako. Diagnostikoa erresonantzia magnetiko bitartez egiten da. Tratamenduaren hel-

burua, agerraldiak ahalik eta labur eta bakanduenak izatea eta gaisotasunak aurrera ez egitea da. Agerraldiak kortikoideekin tratatzen dira eta sakoneko tratamendua experimental da oraingoz. Ezjakintasun handia dago gaisotasun kroniko honen inguruan eta horrek antsietatea sortzen du gaisoengan.

Inzidentziari dagokionez, 100.000 biztanleko 20ren bat kasu ematen dira gure artean (herrialdeen arabera aldatzen da kopurua) eta emakumeen artean kasu gehiago ezagutzen dira. Gehienetan 20-40 urte bitartean agertzen da eta adin horretatik gorako kasuak larriagoak dira. **B**

■ bergarako gordailutik

## IDIAK ETA AHARIAK EMATEN ZIREN HILETA ELIZKIZUNETAN

Imanol Sorondo


*S*an Pedroko elizak hamabi apaiz zituen 1711. urtean, bere egoerari buruz egin-dako galdekizun batzuei erantzuteko eskatu zitzaionean. Apaizek diru gutxi jasotzen zutelaren erantzun zuten, harremanetatik, hileta elizkizunetatik eta urtemugako mezetatik. Bost mila edo klase zeudela hileta elizkizunetan eta beheko mailakoek zekarkieten ogiak ez zirela behar zuten pisukoak, eta goikoak berriz, behekoetara pasatzen ari zirela.

Parrokiak irabazien eta fruituen "harremanak" hartzen zituzten elizkizunetarako eta apaizen elikadurarako. "Harremanak" hitzarekin fruituen eta irabazien ehuneko hamarra esan nahi zen, baina, izena mantendu arren, gutxiago ere eman zen batzuetan. Lehenengo eta bigarren klaseetan idi bat emateko ohitura zegoen, eta honela banatzen zen: laurden bat apaizendako; bigarrena, lanpostu baten zain zeuden apaizendako, sakristau eta serorentzako; hirugarren laurdena, hospitalerako; eta laugarrena, monjen komenturako. XVII. mendearen bukaeran apaizendako bi ahari ematea erabaki zen, lehengo idiaren laurdenaren orde. Hala ere, batzuek ohitura zaharrari jarraitu zioten. Hileta elizkizunetan bederatzirenean, urteko lehengo igandeetan eta urtemugetan klaseari zegozkion libra desberdinetako ogiak ematen ziren.

Hirugarren eta laugarren mailakoek ere eramaten zituzten ogiak eta aharia urtemugetan.

Oso laburtuta ipini ditugu ohitura hauen zehaztasunak. Agian, ikusi izan dugu pintura koadroren batean nola doan jendea hileta elizkizunera, aurrean ahari bat dararamala. **B**





## Haize berriak Herriarron ordua



**Gaur**, eguakitz, ekainak 4  
• HERRI AFARIA SEMINARIOAN.

**Zapatuan**, ekainak 5  
• MENDI IBILALDIA. goizeko 10etan plazan.  
• MITIN NAZIONALA IRUÑAN. Autobusa arratsaldeko 3etan irtengo da frontoitik.

**Domekan**, ekainak 6  
• HERRI MUGIMENDUAREN EGUNA.

**Ekainaren 11n**, eguakitz  
• MITINA PLAZAN. Hizlariak, Mila Idiakez eta Jesus Mari Garitano.

bozkatu



Bergara



Euskal Herriarrok



# HAUTESKUNDEAK 99

## Zuk nahi duzun Bergara



Victoriano Gallastegi



Kontxi Irizar



Koldo Pereira



Juan Jose Arrieta (Indep.)




Jose Antonio Etxeberria




Nere Amaia Zabala



Iñigo Alberdi (Indep.)




Felipe Altuna (Indep.)



Xabier Zabaleta



Juan Garitano



Iñaki Arrondo (Indep.)




Javier Badiola




Luis Abajo



Arantxa Ibarzabal



Antonio Herzog (Indep.)




German Muruamendiarez  
(Indep.)



Itziar Zabala



Aintzane Ugalde



Jabier Mugika



Jesus M° Elorza



eusko  
alkartasuna



Zurekin bateginik.





# H a u t e s k u n d e a k 1 9 9 9



**Datozen lau urteotan Bergarako Udala gobernatuko duten ordezkariak aukeratuko dituzte herritarrek datorren ekainaren 13an. Alkategaiak elkarrizketatu ditugu, euren egitasmoak jaso nahian. Bost alkategairen artean aukeratu beharko dute herritarrek. Lau bergararrak dira; bosgarrena, donostiarra. Azken hau, PPkoa, ezin izan dugu elkarrizketatu, ez guk nahi izan ez dugulako, halere.**





VICTORIANO GALLASTEGI EAJ/EAko alkategaia

# “EAJk eta EAk beste inork baino gehiago egin dute bakea lortzeko”

**G.** EAJ eta EA elkarrekin zoazte oraingoan. Zergatik?

**E.** Herri honetako abertzaletasun demokratikoak batera lan egin behar du. Horregatik, berandu izan bada ere, heldu da hauteskundeetara, bi alderdiak bat eginik aurkezteko ordua. Gainera, kontuan izan behar da azken lau urteotan elkarrekin izan garela udal gobernuan eta esperientzia positiboa izan da.

**G.** Etorkizunean bi alderdiek bat egiteko lehen urratsa?

**E.** Helburua ez litzateke hori izan behar. Bakoitzak bere izaerari eta nortasunari eutsiz, hainbat gaitan ados jartzeko eta bozketetan koalizioak osatzeko gauza bagara, nahikoa.

**G.** EAJ eta EA Bergaran bakoitza bere aldetik aurkeztu izan bazinete, alkatetza galtzeko arriskua egon zitekeen?

**E.** Oraingoan ere irabazi egingo genukeela uste dut. Legebiltzarreko bozketetan EH izan zen lehen indarra, baina orain dela lau urte ere horrela izan zen

eta, gero, Udal hauteskondeetan EAJk irabazi zuen.

**G.** Bereziki pozik zaude lau urteotan egindako zerbaitengatik?

**E.** Langabezia jaitsi delako, nahiz eta oraindik %5ean egon. Etorkizunean Bergaran langabeturik ez egotea lortu daitekeela uste dut. Bestalde, ziur nago laister helduko dela behin betirako pakea. Hori lortzen dugunean, Euskadik sekulako gorakada izango du. Bestalde, administrazioa euskaratzeko legegaldi honetan Bergarako Udalean abian jarritako plana aitzindaria izan da. Horrez gain, Labegaraietako Industrialdea sustatzeko, garatzeko eta kudeatzeko udal elkarte sortu dugu; hori ere azpimarratzekoa da.

**G.** Zein da Bergarak duen premiarik nagusiena?

**E.** Kirol mailan, igerilekuek eta Agorrosingo kirol guneak gabezia handiak dituzte eta proiektu integrala egingo dugu Foru Aldundiarekin batera, Agorrosin-

go kirol gunea gaur egungo beharretara egokitzeko. Aparkalekuen arazoa ere hor dago eta apurka-apurka irtenbideak topatzen ari gara. Bestalde, ezinbestekoa da bailararako azpiegitura berriak bultzatzea: Eibar-Gasteiz autopista, Beasain-Durango korredorea, ekialdeko saihesbidea... Auditoriuma, autobusen geltoki berria..., dira Bergarak dituen beste premia batzuk.

**G.** HBk oposizioan eman ditu azken zortzi urteak. Datorren legegaldia ezberdina izango da bizi dugun egoera politiko berria dela eta?

**E.** Hauteskundeak pasata gero ikusiko ditugu emaitzak eta ados jartzeko gauza garen ala ez. HBk sarritan esan du Udalean baztertuta sentitu dela eta hori ez dela demokratikoa. Ez nator bat iritzi horrekin. Nik badakit oposizioan egotea zer den eta esan dezaket oposizioan lan egin daitekeela, batzordeetan parte hartuz. Udal gobernu

gehiengo demokratikoz aukeratu izan da.

**G.** Jaurilaritzako formula bera aplikatu daiteke Bergaran?

**E.** Aukera bat baino gehiago dago eta bat hori izan daiteke. Guztiok egon behar garela gobernuan? ikusiko dugu ekainaren 13tik aurrera.

**G.** Eta azken lau urte hauetan bezala PSE-EEekin batera gobernatzea?

**E.** PSE-EEK gaur egun darabilen diskurtsoarekin segitzen badu, ez dakit zer etorkizun izango duen Euskadi honetan.

**G.** Emaiezu arrazoi bat EAJ eta EAren ohiko boto-emale ez direnei ekainaren 13an botoa zeuri emateko.

**E.** EAJ eta EAk beste inork baino ahalegin handiagoa egin dutela eta besteek baino arrisku gehiago hartu dutela Euskadin pakea lortzeko.

**G.** Zenbat zinegotzi lortzea espero duzue?

**E.** EAJ-EAk 10 zinegotzi; EHk 6 eta PSE-EEK bat. **B**

“Agorrosingo kirol guneak gabezia handiak ditu eta proiektu integrala egingo dugu Foru

Aldundiarekin batera, Agorrosin ingurua gaur egungo beharretara egokitzeko”



Zubiaurren jaio zen 1940ko azaroaren 2an. Alarguna, 3 seme-alaba ditu. Ezkondu eta Zabalotegiko dorrera etorri zen bizitzera eta, ondoren, Bidekurutzetara. Zerrajeran ibili zen lanean 25 urtera arte; ondoren, Biltokin beste 25 urte eta azken zortzi urteotan alkate dugu. Gaztetan BKEko futbolari izan zen eta gaur egun mendian ibiltzea eta

**alkate gaia**  
**GER TU TIK**

pasiatzea gustatzen zaio. Erlajatzeko musika klasikoa entzuten du, baina noizbehinka seme-alaben musika ere jartzen

du, batez ere autoan doanean; Audi A4 autoa erosi berri du, 11 urtean Opel Kadett bat eduki ondoren. Irakurri, ostera, gutxiago egiten du asti handirik ez delako. Deia eta El Diario Vasco erosten ditu, baina Gara eta Egunkaria ere irakurtzen ditu. Ondo informatuta egotea gustatzen zaio. Bergarako txokorik politena San Martin plaza ingurua da, bere ustez, eta kanpotik datoren lagun bati herri osoa erakutsiko lioke, hasi Udaltxetxe ingurutik eta herriko etxe eta monumentu historiko guztiak ondoren. Ezkutatu, berriz, ez lioke ezer ezkutatu, ezta alderik itsusiena ere. Gehien baloratzen duen eskubidea askatasuna da, eta baita gizabanakoen arteko errespetua ere.

**programa**

**INGURUGIROA**

Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin batera, Bergarako ur kolektorea eta depuradora egingo dira, Deba erreka garbitzeko ezinbesteko obra.

**INDUSTRIALDEA**

Legealdi honetan amaituko da Labegaraietako industrialde osoaren urbanizazioa. Bestalde, 1999an zehar industrialdeko lehendabiziko pabilioiak jarriko dira abian.

**HIRIGINTZA**

Kasko Historikoaren Plan Berezia onartuko eta, ondorioz, hainbat plan jarriko ditugu abian: Irala kalearen urbanizazioa, hainbat kale oinezkoentzat bihurtu, Xabier Maria Munibe plaza egingo da eta bertan komun publikoak eta prentsa saltzeko kioskoa jarriko dira... Bestalde, Santa Ana ermita birgaituko dugu eta Errotalde parkea txukuntzeko proiektua onartuko da; Katabia eta Santa Marina ingurua urbanizatuko dira; Torrekua aurrean autobus geltoki berria egingo da; San Martzial ingurua egokitu eta txukuñduko da, eta aparkalekuei dagokienez, Ibergarain 63 autotendako lur azpiko garajeak egingo dira.

**ETXEBIZITZA**

San Antonion 68 etxebizitza sozial eraikiko dira eta, horrez gain, lurzoru gehiago erosi da etxebizitza sozialak sustatzen jarraitzeko.

**AZPIEGITURAK**

Deba Garaiaren garapena eta etorkizuna ziurtatuko duten azpiegiturak bultzatuko di-

tugu: Eibar-Gasteiz autopista, Beasain-Durango korredorea, San Antonioko saihesbidea...

**HEZKUNTZA ETA KULTURA**

Heriko ikastetxeei dirulaguntzak eman jarraituko dugu, hezkuntza arloko jarduerak garatu ditzaten. Bestalde, Udal Liburutegiari beste kokapen bat aurkitzeko proiektua egingo da, Bergarako artistentzat (BEART) lokal berria, eta lokal publikoak egokituko dira hainbat taldek erabili ditzaten. Horrez gain, Arrizuriaga parkean auditoriuma eraikitzeko proiektu teknikoa enkargatuko da.

**EUSKARA**

Bergarako Udalak toki administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko esperientzia pilotoa eratu zuen. Aurrerantzean ere bide beretik joko dugu.

**LANA**

Lur industrialia sustatu, ordenatu, bultzatu, erosi eta lantegi berriak jartzeko helburuarekin sortutako "Bergarako Bihargintza 98 S.A." udal elkartearen bitartez, lanpostu berriak sortuko dira.

**KIROLAK**

Gaur egungo kirol jarduerak eskatzen duten azpiegiturei buruzko azterketa zehatza egin ondoren, Foru Aldundiarekin batera proiektu berriak gauzatuko dira: Igerilekuak, Agorrosin ingurua...


**AUZOAK**

Auzoen beharrei erantzuteko, obra garrantzitsuak egingo dira urtero premia nagusiak dauden tokietan.

**GAZTERIA**

Urtean zehar gazteendako antolatzen diren jardueraz gain, legealdi honetan, guztion artean, gazteen eskaerei irtenbidea emango diegu.

**eboluzioa**







JESUS MARI GARITANO EHko alkategaia

# “Udaletxean lizunak kentzeko haize berriei leihoak zabaldu nahi dizkiegu”

**G.** Zer eskaini dezake EHk, lehen HBk eskaintzen ez zuena?

**E.** Proiektu berri honetan ezkerreko, abertzale eta aurrerakoi ideologiadun beste hainbat herritarrek ere bat egin du EHrekin. Beraz, lehen baino eskaintza zabalagoa plazaratzen dugu oraingoan.

**G.** Orokorrean zer eskaini diezaiotke EHk Bergarako herriari, beste alderdiek eskainiko ez dietena?

**E.** Haize berriak ekarri nahi ditugu Udaletxera, hau da, lizunak kentzeko haize berriei leihoak zabaldu nahi dizkiegu. Politika aurrerakoia egin eta inposatutako politikarekin amaitu.

**G.** Zeure burua Bergarako alkate ikusten duzu?

**E.** Bai, gure apostua lehen indarra izatea da. Gainera, EHn taldean lan egiten dugu eta alkatetzat lortuz gero, taldean lan egingo genuke. Beste indar politiko batzuen figura presidentzialistarekin ez gatoz bat.

**G.** Zela baloratzen duzu EAJ eta EAk udal hauteskundeetarako bat egin izana?

**E.** Hauteskundeetan bi alderdiek bat egin badute, EHk alkatetzat lortzeko aukera errealak zituela ikusi dute. Udalak izan da.

**G.** Zer da alkate irtengo bazina egingo zenukeen lehendabiziko gauza?

**E.** Udalaren funtzionamenduan demokrazia ezarriko genuke, orain arte ez baita izan demokraziarik. Beti esan dugu Udalean ordezkariak lortzen duten alderdi guztiak egon behar direla Gobernu Batzordean eta lortzen duten zinegotzi kopuruaren arabera banatu behar direla ardurak. Honekin batera, herritarren partehartzea bultzatuko genuke.

**G.** Bergarak duen premiarik nagusia?

**E.** Beharrak ugariak dira baina bat aipatzearen etxebizitzaren arazoa aipatuko nuke. Kalifikatutako oso lur gutxi geratzen da eta, bestalde, etxebizitzak oso

garesti daude eta gazteendako eta langile askorendako ezinezkoa da etxe berri bat erostea. Bestalde, Bergaran diren 6.000 etxebizitzetatik 1.000 inguru hutsik daude. Hau ikusita, zailtasun jartzen dugu lur gehiago kalifikatu behar denik. Lurra denon ondarea da eta politikari agortzen doa. Soluzioak? Etxebizitza hutsei irteera eman, etxeak alokatzeko Udalean bulego bat zabalduz eta etxe horiek merkatura ateraz. Bestalde, gazteendako lokalik ez dago eta arazo hori konpondu egin behar dago; langabeziari aurre egiteko neurri batzuk ere bultzatu daitezke Udaletik; preso eta errefuxiatuen egoera aztertzen eta hauen senideei laguntzen ere Udalak badu zeregina...

**G.** Zerbait egin du ondo azken lau urteotan Udal gobernua?

**E.** Zaila da gauzak ondo egitea, 17 zinegotzitik 7 baztertuta geratzen badira.

**G.** Eta oker egin duen zerbait?

**E.** Orkestra Sinfonikoaren kontua ez da behar den moduan egin, ezta kanposantu ondoko aparkalekuak ere. Bestalde, UNEDen Euskal Departamendua ixtea Bergararentzat kaltegarria izan da eta gai honetan Bergarako Udalak izan du zeresana; Ertzaintzak Arrizuriaga etxea lagatzeagatik Udalak 65 milioi pezeta ordaindu behar izana ere ez da negozio ona eta uraren kontuan, Bergara hain aberatsa izanik, Ur Kontsorzioari hainbeste diru ordaintzea ere ez da logikoa.

**G.** Emaiezu arrazoi bat EHren ohiko botoemaleak ez direnei, ekainaren 13an zuri botoa emateko.

**E.** Bergarako herritarrek bi aukera bakarrik dituztela: alde batetik, betiko aukera atzerakoa eta, bestetik, benetako abertzaleena, aurrerakoa eta ezkerrekoa, EHrena.

**G.** EHk zenbat zinegotzi?

**E.** Helburua zortzi ortzea da. **B**

“Proiektu berri honetan ezkerreko, abertzale eta aurrerakoi ideologiadun beste hainbat

herritarrek ere bat egin du EHrekin. Lehen baino eskaintza zabalagoa plazaratzen dugu”



**A**benduaren 24an 53 urte beteko ditu, Zubieta kalean jaio-tako bergararrak. Bi alaba ditu, Burdiñaten bizi da eta Mayc-en egiten du lan. Zinegotzirik beteranoeneta-koa, 1979. urtetik, legealdi batean izan ezik, beste guztietan izan baita Bergarako Udal batzarreko kide: EMKko ordezkari lehenengo, eta HBren izenean ondoren. Mendia, pintura eta irakur-

**alkate gaia GER TU TIK**

keta dira bere zaletasun nagusiak. Artea eta historiari buruzko liburuak, eta gaur egungo euskal idazleen eleberririk ditu gustuko. Juan

Martin Elexpuren "Krabelina beltza"-rekin asko disfrutatu zuen eta, orain, Unai Iturriagaren "Berandu da gelditzeko" irakurtzen dabil. Gara egunkaria erosten du, baina beste hainbat ere irakurtzen ditu. Mozart, Vivaldi..., gustatzen zaizkio, eta baita Lertxundi edo Oskorri ere. Ford Fiesta bat dauka. Bergararik, Bideberri, Zubieta eta Santa Marina inguruak gustatzen zaizkio eta kanpotar bati Bergara nola sortu zen, zelako alde zahar ederra duen eta joan zen mendean hirigintzan zein lan ona egin zen eta 1950tik aurrera batez ere, zein kas- karra egin den azalduko lio- ke. Gehien baloratzen duen eskubidea askatasuna da.

## programa

### UDALA

Gobernu Batzordea talde guztiei zabaldu, ohiko Udalbatzak hileroko egin eta herritarrek ahoz parte hartzeko aukera eskaini. Herritarrendako garrantzitsuak diren gaietan erreferendumak antolatu. Bestalde, hiru batzorde berri sortu: Ingurugiroa, Pertsonala eta Presoak. Eta politikoen soldatak berraztertu.

### SOZIOEKONOMIA

Udal aurrekontuak egiterakoan, herriaren eta zinegotzi guztien iritziak kontuan hartu. Udal tasak kontrolatu eta herriko ostalaritzaren aldeko apustua egin. Gainera, udal zerbitzuen munitziazioa bultzatu.

### ETXEBIZITZA

Hutsik dauden etxebizitzaren arazoari irtenbidea eman, etxebizitzak birgaitzeko laguntzak bultzatu eta etxebizitzak alokairuan hartzeko, Udalak dinamizatzaile eta bitartekari lanak egin. Horrez gain, etxebizitza sozialak bultzatu eta gazteendako eta lehenengo etxebizitza bilatzen ari direnendako laguntza bereziak eskaini.

### ONGIZATEA

Baliabide ekonomikorik ez duten familientzat gutxieneko soldata ezarri, oztopo arkitektonikoak kentzeko plana martxan ipini eta herriko preso guztien egoeraren jarraipena egiteko batzordea eratu. Bestalde, haurtzaindegi munitziazioa bultzatu eta bikote ezkongabeei eskubide guztiak onartu.

### AUZOAK

Auzoetako batzordea dinamizatu, auzoen benetako arazoei erantzuteko. Bestalde, kalitatezko nekazaritza produktuen salmenta zuzena bultzatu.

### KULTURA

Herriko kultur talde guztien beharrei erantzungo dien kultur gune (Seminarioa...) baten aldeko apustua. Udalak sakabanaturik dituen lokalen azterketa amaitu eta, horrez gain, Bergaran herri telebista sortzeko bidegarritasun plana aztertu.

### EUSKARA

Euskararen Aholku Kontseilua sortu eta udaletxean zein herrian euskararen erabilpena bultzatu.

### INGURUGIROA

Ingurugiro batzordea eratu, Arrizuriaga eta Errekaldeko parkeak publikoari zabaldu, Usondo eta Errotaldekoak egokitu eta Artzamediko parkea egin. Bestalde, bailarako beharrei erantzungo dien errepidea egin, trafikoaren arazoa konponduko duena. Urari buruz, baliabide propioak bultzatu eta erre- ken saneamendua bultzatu.

### IRAKASKUNTZA

Euskal Eskola Publiko Nazionalaren aldeko apustu garbia. Bergarako hezkuntza-errealitate kontuan hartuz, gaur egungo Eskola Publikoaren eta Ikastolaren arteko elkarlana eta baterearen bidea jorratu. Bestalde, UNED Bergaran mantendu eta indartu.


### GAZTERIA

Gazteek autogestionatutako gune publiko bat eratu, Udal Liburutegia handitu eta beregituratu eta Eudimari buruz, Udalak hartutako akordioak betearazi. Bestalde, udal zerbitzuak gazteendako merkatu, eta gazteentzat sexu informazio eta heziketa integrala bermatuko duen plangintza aurrera eroan.


### KIROLAK

Kirol instalazio berriak egin eta daudenak hobetu, trenbide zaharrean bidegorria bultzatu eta herriko kirol elkarteendako dirulaguntzak handitu.

## eboluzioa







## Hogei urte igaro dira lehen Udalbatza demokratikotik

**Jose Antonio Zabala demokraziako lehen alkatea izan genuen. 1979ko apirilaren 20an osatu zen Udalbatza eta orduko hautagaien artean gaur egun EHko zerrendaburu den Jesus Mari Garitano ere bazegoen.**

Garai hartan EMK alderdiko zerrendako lehendabiziko tokian aurkeztu zen Garitano. Bozketaren ondoren Zabalak bederatzi boto jaso zituen (EAJk hauteskundeetan lortutako 9 zinegotziena), Alfonso Zafra PSE-PSOeko ordezkariak boto bat jaso zuen eta beste zazpi botoak txuriak izan ziren. Amador Moral Udaletxeko Idazkaria zela, Jose Antonio Zabalak alkate kargua hartu zuen Jose Luis Elkoro ordezkatzuz eta 1983an legealdia amaitu arte izan zen lanean Udaletxean.

### IKUSMIN HANDIA

Esan bezala, EAJ izan zen garailea; Zabalaren zerrendak

3.790 boto jaso ondoren, bederatzi zinegotzi lortu zituen. HB, berriz, 2.493 boto eta bost zinegotzirekin bigarren alderdia izan genuen eta hirugarren tokian Euskadiko Ezkerra (747 botoekin) geratu zen. HB eta EEko zerrendaburuak Ignacio Basterra eta Gurutz Larrañaga ziren. Alfonso Zafra zerrendaburu zela, PSEk 499 boto jaso zituen eta EMK alderdiak lortutako 421 botoei esker zinegotzi bat izateko eskubidea izan zuen. EAJ eta HB izan ezik, aipatutako gainontzeko alderdiek ordezkari bana lortu zuten.

Zenbatutako 12.639 hautesleetatik 8.479 boto zenbatu ziren 1979ko udal hauteskundeetan, abstentzioa %32,91-koa izan zelarik. Hauteskunde haiek ikusmin handia piztu zuten herritarren artean.

### EAJ, HB, EE, PSE-PSOE ETA EMK

Goiko argazkia, demokraziako lehen Udalbatzarena duzue. Bertan agertzen direnak, hona-

ko hauek dira, ezkerretik esku-mara (parentesi artean orduan ordezkatzan zuten alderdia):

Atzean: Ignacio Basterra (HB), Joseba Larrañaga (EAJ), Gregorio Plazaola, (HB), Manuel Oruesagasti (HB), Mari Carmen Otaño (EAJ), Serafin Linazisoro (EAJ), Ricardo Otaño (EAJ), Maria Luisa Gallastegi (EAJ) Gurutz Larrañaga (EE), Fernando Lasa (HB), Jesus Mari Garitano (EMK) eta Javier Sudupe (HB).

Aurrean: Amador Moral idazkaria, Emeterio Elkoroberezibar (EAJ), Juan Carlos Berrando (EAJ), Jose Antonio Zabala (EAJ), Alberto Bolibar (EAJ) eta Alfonso Zafra (PSE-PSOE).

Lau urteko legealdian hainbat aldaketa izan ziren Udalbatzan. EAJtik Nerea Mujika, Koldo Pereira (gaur egun 3. tokian aurkeztu da udal hauteskunde-etarako) eta Florentino Yarza sartu ziren eta HB alderditik, berriz, Elias Letek Javier Sudupe ordezkatu zuen legealdia amaitu baino lehen.

## Lau alkate demokrazian

**J**ose Antonio Zabala 1979tik 83ra bitartean izan zen alkate. EAJko bozeramalea Gipuzkoako batzarretan eta alderdia zaitu zenean EAko juntero ere izan zen. 1998ko uztailaren 3an hil zen, 78 urte zituela.

Imanol Bolinagak (EAJ) hartu zion erreleboa Zabalarik Bergarako alkatetzan 1987ko maiatzean. Lau urtez izan zen alkate eta ondoren udal oposizioan lan egitea tokatu zitzaion. Garai hartan Turismo sailburuordea izan zen. 1991tik orain gutxi arte Madrilgo Senatuan izan da lanean.

Jose Luis Elkoro (HB) bi aldiz izan da alkate, 1976tik 79ra lehenbizi eta ondoren 87tik 91ra bitarteko legealdian. Enpresagizona, Elkorok ibilbide luzea egin du politikan. Mahai Nazionaleko kide ohien kontrako auzia dela eta, egun espetxeratu dago Martutenen.

Victoriano Gallastegi (EAJ), berriz, 1991ko uztailetik dugu alkate. Aurretik 83tik 91ra bitartean zinegotzi lanetan izan genuen. Ekainaren 13ko udal hauteskundeetan EAJ-EA koalizio-ko zerrendaburu izango da.







# Jena AUTO

## 2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria.

7. zenbakia. 1999ko ekaina.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trubxuelo.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara Berrigarako aldizkaria

Arrasate



MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

**AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30**

Peugeot 406 SV 2.0				*6
Peugeot Partner D				*6
Peugeot 306 GTI 6 abiadurakoa				*7
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Peugeot 205 D				*2
Peugeot 205 G				*2
Peugeot 405 G				*2

**BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43**

Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, LK, AH	*3
Ford Escort 1.6 RS Turbo	SS-AJ	1990	Autoblock, EBD, Km gutxi	*3
Ford Sierra 2.0i Sport	BI-AZ	1989	LD, KE, IZ, AG, SE	*2
Renault Supercinco GTX	SS-AB	1988	KE, IZ, LK, AH	*1
Ford Orion 1.6i Ghia	SS-AB	1988	KE, IZ	*1
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	KE, IZ, LD	*2

**ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49**

Citroen Xsara 1.9 D	M-VZ	1998	5 ate, osagarri asko	*6
Citroen Xsara 1.9 TD SX		1998	5 ate, osagarri asko	*7
Rover Discovery 2.5 TDI		1993	AG, SE bikoitza	*7
Citroen Xantia 1.9 TD SX		1996	KL, AG, Airbag, Km gutxi	*6

**KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98**

Fiat Uno D	SS-AF	1989	IK, 3 ate	*2
Opel Corsa	SS-AM	1992	IK, 3 ate	*1
Peugeot 309 GR	SS-Z		IK	

**LENIZ GARAJEA. Aingeru guarda 31. Eskoriatza. Tf. 943 71 50 61**

Citroen AX TRS	SS-AD			*1
----------------	-------	--	--	----

**MECA TAILERRAK. San Andres 8. Arrasate. Tf. 943 71 24 72**


VW Golf Cabrio 1.6	SS-AC	1989		*4
Renault Clio 1.4 RN	SS-AK	1991	3 ate	*5
Renault Traffic 1.4 Combi	SS-AY	1997	Gainaltzatua	*6
Ford Fiesta 1.6	SS-Z	1987		*1

**AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagnak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak  
**HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Ibxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak  
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak  
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

**\*1:** 300.000 PTara arte  
**\*2:** 300.000-500.000 PTA  
**\*3:** 500.000-750.000 PTA  
**\*4:** 750.000-1.000.000 PTA

**\*5:** 1.000.000-1.500.000 PTA  
**\*6:** 1.500.000-2.000.000 PTA  
**\*7:** 2.000.000 PTatik aurrera

**GARAJE MURILLO**
**Mekanika orokorra**

 Leizeaga 4 • Bergara  
 Tf. 943 76 13 84


Garraioaren mundua

**LAGUN GARAJEA**

**Javier Gallastegi Arenaza**

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

**ORAIN HELBIDE BERRIA!**

Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20


**Automobilaren  
 karburazio eta  
 elektronika**

 Urribari etorbidea 16.  
 Arrasate. 943 79 73 58



MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Renault Megane Clasic 1.6 Alizé	B-TX	1998		*6
Renault Twingo 1.2 Wind	SS-BB	1999		*5

**MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44**

Ford 4x4 Maverick TDI		1996		*
Mithsubichi 4x4 TDI		1998		*
Nissan Patrol 4x4 DI		1989		*
Ford Scort RS 2000 4x4		1994		*
Land Rover 4X4		1980		*
Ford Mondeo TDI		1996		*
Ford Mondeo TDI		1997		*
Ford Mondeo TDI		1994		*
Ford Fiesta Di		1993		*
Ford Fiesta Di		1992		*

\* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pezeta artean. Zatoz ikustera!

**OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74**

Opel Corsa GSI 1.6	VI-L	1990	Ugari	*3
Opel Astra Merit 1.6 i	SS-AW	1996	Ugari	*5
Opel Vectra GL 1.7 D	SS-AL	1991	Ugari	*3
Opel Vectra GL DTI 2.0	M-VZ	1998	Ugari	*7
Renault Clio 1.9 D 3 ate	M-TN	1996	Ugari	*4
Rover 214 GSI 16V 5 ate	SS-AM	1992	Ugari	*3
Audi 2.2 200 4x4 T	SS-AG	1986	Ugari	*3
Smart Pulse 55 CV	Berria	1999	Ugari	*5
Opel Vectra Caravan 1.8i 16V	Berria	1999	Ugari	*7
Opel Corsa SW 1.2 3 ate	SS-BB	1998	Ugari	*4

Kotxe ugari errebisatu eta bermatuak 200.000 et 500.000 pezeta artean

**SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80**

Peugeot 405 GL	SS-AB			*2
VW Golf GTI 3 ate	SS-AK			*3
Renault 19	SS-AD			*2
Audi 90 Quatro	SS-AS			*4
WV Yetta	SS-AD			*1

**TXOMIN GARAJEA. Lizarra auzoa z/g. Antzuola. Tf. 943 78 70 77**

Opel Astra 2.0	SS-AK		AG, ABS, IK	*4
----------------	-------	--	-------------	----

**AG:** Aire girotua **AH:** Aleaziozko haguak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak  
**HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatuak **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak  
**KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak  
**LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

\*1: 300.000 PTara arte  
 \*2: 300.000-500.000 PTA  
 \*3: 500.000-750.000 PTA  
 \*4: 750.000-1.000.000 PTA


\*5: 1.000.000-1.500.000 PTA  
 \*6: 1.500.000-2.000.000 PTA  
 \*7: 2.000.000 PTAtik aurrera

**JASO GARAJEA**

Autoen konponketa orokorra



Amillaga 1, 4 pabilioia.  
Bergara. Tf. 943 76 33 00

**TXOMIN GARAJEA** 

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!



**Txorno**  
Auto-errekabioak

Ibargarai 33, behe. BERGARA  
943 76 29 95



# 35.000 IRAKURLE

## Berrigara Arrasate

# DENA AUTO

2. ESKUKO  
AUTOMOBILEN GIDA

**Deba Garaiko auto saltzaileok!** Aukeran dituzuen erabilitako kotxeen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

**Dena Auto**, Deba Garaiko 2. eskuko automobilen gida, berriz ere zuekin, 1999an **eskaintza berriekin** dator.

### Kontratazioa

Nerea Lazpiur

ARRASATE PRESS  
Otalora kalea 31  
20500 Arrasate.  
Gipuzkoa

Telefonoak:  
943 76 03 97  
943 71 25 11  
Faxak:  
943 76 29 77  
943 71 23 95

BERRIGARA  
Errotalde jauregia z/g  
20570 Bergara.  
Gipuzkoa

## Uztailaren 9an ale berezia

argitaratuko dugu. San Kristobal dela eta, motorrari buruzko berezia egingo dugu, gaiaren inguruko **artikuloekin** eta publizitatearekin.

**Auto saltzaileok ez duzue hau baino aukera hobirik izango zuen eskaintzen berri emateko!**

Ondorengo aleak urriaren 15ean eta azaroaren 26an argitaratuko dira.

**1999rako eskaintza berezia** egin nahi dizuegu. Lerroaren eta publizitate moduloaren prezioa hauexek izango dira:

**LERROA: 1.300 PTA**


**PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 PTA**

## Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, hau da, sei inserzio eginez gero (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.



# Udal hauteskundeetako boto bilakaera Bergaran, 1979-1995



**1979. urte hartatik seigarren udal hauteskundeak izango dira datorren ekainaren 13koak. Orduetik hona aldaketa asko izan da Bergarako mapa politikoan.**

Esate baterako, Euskadiko Ezkerra eta EMK alderdiak desagertuta daude dagoeneko eta beste batzuk agertu dira, Ezker Batua eta PP alderdiak. Bi alderdi hauek aurreko udal hauteskundeetara aurkeztu ziren lehenengo aldiz Bergaran, 1995eko maiatzean hain zuzen, eta oraingo honetan aurkeztu dituzte zerrendak.

Azken 20 urteotan egindako udal hauteskundeetako emaitzei begiratuz, EAJ alderdia izan da garaile botazio guztietan, 1987ko hauteskundeetara

tan izan ezik. EAJ eta EAren arteko zatiketaren ondorioz, HB izan zen nagusi hauteskundeetan urte hartan: Jose Luis Elkorro zerrendaburu zelarik, HBk 3.000tik gora boto jaso zituen aurreneko aldiz eta alkatetza eskuratu zuen.

## ELKOROREN ONDOREN, EAJ NAGUSI

EAJ eta EAren arteko lehian, berriz, EAk 2.350 boto eduki zituen eta EAK 1.565 boto. Absentziorik baxuena orduko da, %28,05. Hortik aurrerako hauteskundeetan, portzentaie ireparatzen badiegu, EAk gora egin zuen, HB berdintsu mantendu zen eta EAK, ostera, behera egin zuen. Zinegotzi kopurua ikusiz, 5etik 7ra igaro ziren jeltzaleak 91n, HBk 91n zinegotzi bat galdu ondoren zaz-

pigarrena berreskuratu zuen eta EAK, aldiz, bi zinegotzirekin lan egin izan du azken bi legealdietan, 87an hiru zinegotzirekin lanean hasi bazen ere. Bestalde, PSE eta EEk bat egiteak ez zion mesede handiegirik egin boto kopuruari dagokionez alderdi sozialistari; 1991ko hauteskundeetan 742 boto jaso zituen eta handik lau urtera 634 boto. 1983an bi zinegotzi izatea lortu bazuen ere, gainontzekoetan zinegotzi bakarra izatearekin konformatu behar izan dira sozialistak.

## INDARRAK PAREKATUTA

Alderdien zinegotzi kopurua aztertuz, EAJ bi aldiz heldu da 9 zinegotzi izatera, 1979an eta 1983an. 1991tik 7 zinegotzi dauzka eta, beraz, azken 8 urteotan beste alderdi batzuekin

governatu behar izan dute jeltzaleek. HBk ere beste zazpi zinegotzi lortu zituen azken hauteskundeetan eta 87an, gobernuan izan zenean, zinegotzi kopuru bera zeukan. Oraingoan oposizioan lan egitea tokatu zaie. PPK azken hauteskunde orokorretan eta autonomikoeetan emaitza deigarriak lortu badiu ere, oraindik Ez da iritsi Udalean ordazkaritzarik izatera eta Ezker Batuari ere, neurri baxuagoan izan bada ere, beste horrenbeste gertatu zaio.

Kinielak egiteko garaia iritsi da. Alderdi guztiEk botoak lortzeko borrokan dihardute dagoeneko eta ikusi egin behar ekainaren 13ko emaitzen ostean zer nolako hurbilketak ematen diren alderdien artean. Oraingoan, behintzat, boto-emaleena da hitza. **B**





ALVARO ESPARZA PSE/EEko alkategaia

## “Lizarrak esaten duena ikusita, Bergaran oposizioan izango gara”

**G.** Lizarra-Garaziko Akordioa, PSE-EEK Jaurlaritza laga izana, EHk instituzioetan buru-belarri lan egiteko hartutako konpromisoa... Honek guztiak zer eragin izan dezake datorren legealdian udal gobernuan?

**E.** Galdera horri orain erantzutea zaila da, hobe da ekainaren 13ko emaitzak ikusi arte itxoi-tea. Komunikabideetan irakurri eta entzun izan dut EAJ, EA eta EHk hitzarmena sinatuta daukela datorren legealdian udal-tan elkarrekin lan egiteko eta, bestalde, PSE-EE eta PPK ere beste hitzarmen bat sinatuta dutela abertzaleei aurre egiteko eta bide konstituzionalistari eusteko. Nik esan dezaket PPrekin ez dugula ezer adostu.

**G.** Azken zortzi urte hauetan gobernuan egin duzue lan; halere, bizi dugun egoera politiko berri honek gobernutik kanpo laga zaitzakete ekainaren 13tik aurrera?

**E.** Lizarrako Akordioak esaten duena ikusita eta Jaurlaritzan

indar abertzaleek egin duten hitzarmena ikusita, datorren legealdian Bergaran oposizioan izango garela esango nuke. Dena dela, ikusi beharko dugu hauteskundeetan zelako emaitzak izaten diren eta ekainaren 13tik aurrera zer gertatzen den. Esaterako, zer gertatuko da EAJ eta Eak erabateko gehien-goia lortzen ez badute da? Nik neuk, ordezkaritza lortzen duten alderdi guztien artean gobernatzea nahiko nuke, baina goi mailako politikak eta Lizarrako Akordioaren ondoren, bakoitzak hartu duen bideak, baldintzatu egiten dituzte udaletan egin daitezkeen paktuak.

**G.** Eta ikusten duzu EH Udal gobernuan?

**E.** Horri erantzuteko EAJ eta EAri galdetu beharko zenikete.

**G.** Nola baloratzen duzu, orokorrean, udal gobernuak eta, bereziki, PSE-EEK azken lau urte hauetan egin duen lana?

**E.** Orokorrean, gobernu taldearen gestioa oso ona iruditu zait.

Nire departamenduari dagokionez, esan behar dut orain dela lau urte 184 milioi pezeta genituela eta aurtengo aurrekontuetan 240 milioi pezeta bideratu direla Gizarte Ongizatera. Bestalde, gestio plana egina daukat eta aurreikusitakoaren ia dena (%90) bete dela esan dezaket. Esfortzu berezia egin dugu oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eta eguneko zentrua martxan jartzeko.

**G.** Zer geratu da egiteke?

**E.** Egiteke geratu direnen artean, komun publikoak eta etxebizitza sozialak eta alokairukoak. Hauek datorren legealdian egingo dira.

**G.** Zein da une honetan Bergarak duen premiarik nagusia?

**E.** Etxebizita berriak egiteko eta Industrialderako lurra behar beharrezkoa da. Bestalde, aparkalekuen arazoa ere hor dago, baina honi irtenbideak topatzea ez da erraza. Zergatik? azkenaldian autoen salmentak izugarri egin duelako gora. Gaur egun

orain dela lau urte baino 6.000 lagun gutxiago bizi gara Deba Garaian, baina autoen parkeak urtero-urtero egiten du gora, etengabe. Kontu honetan hiritarrok geure ohiturak aldatu egin beharko genituzkeela uste dut, ondoko kalera joateko ere autoa hartzen dugu eta. Bestalde, gazteendako gazteleku baten premia ere ikusten dut.

**G.** Nola baloratzen duzu EAJ eta Eak zerrenda bakarria aurkeztu izana?

**E.** Bakarka joanez gero, alkatezari eusteko aukera izango balute, uste dut ez liratekeela elkarrekin aurkeztuko. Beste herri batzuetan ez dituzte zerrenda bateratuak aurkeztu. Normalizazio prozesuak aurrera egiten badu, hemendik 10 urtera begira, EAren desagerpena aurreikusten dut.

**G.** Hauteskundeetako kiniela...

**E.** EAJ-EAK 8 zinegotzi, EHk 7 eta PSE-EE eta PPK bana. PPK ateratzen ez badu, EAJ-EAK berderatzigarrena aterako du. **B**

“Etxebizitza berriak egiteko eta Industrialderako, lur berria beharrezkoa da. Horrez gain,

aparkalekuen arazoa ere hor dago eta gazteleku baten premia ere ikusten dut”



**N**afarroako Erriberan, Pitillasen, jaio zen 1953ko otsailaren 19an. Lau urte zituenean, bere gurasoekin Arrasatera etorri zen bizitzera eta 1978. urtean ezkondu zenean, Bergarara. Orduetik Artza-mendin bizi da. Bi seme-alaba ditu. Arrasateko Udalean lan egiten du administrari. Azken bi legealdietan zinegotzi: lehenengoa, EE ordezkatzuz eta azken lau

urte hauetan, PSE-EE. Osasuna, Lana eta Gizarte ongizatea izan da bere ardura. Gaztetan eskubaloian aritu zen, baina

**alkate gaia GER TU TIK**

gaur egun ez du kirolik egiten: "aisialdirako ez daukat denbora askorik eta familiarekin edo lagunartean pasatzea gustatzen zait". Dantzan egitea du gustuko eta musikari dagokionez, Beatles, Rolling Stones, Bee Gees edota Supertramp taldeak. El Diario Vasco erosten du eta politikari buruzko gaiak, herriko berriak eta kirolak irakurtzen ditu gehienbat. Opel Vectra bat dauka. Bergarak duen txokorik politena Udaletxea, bere ingurua eta monumentu historikoak dira bere ustez; itsusiena, oster, San Migueleko etxe zaharrak. Gehien baloratzen duen eskubidea, gizabana-koaren bizitza eskubidea da eta, horrekin lotuta, elkarbizitza.

**programa**

**LANA**

Lanpostu berriak sortzea da gaur egun Bergarak eta gure inguruneak, oro har, duen premiarik nagusia. Zentzu honetan, gazteei, emakumeei eta luzaroan langabezian daudenei lagundu behar lieke Udalak bereziki. Horretarako, gizarte eta kultur zerbitzuen alorretan dauden beharrei buruzko azterketa zehatza egin behar litzateke, herrian izan diren aldaketa demografikoek eta kultur eta gizarte arlokoek zelako eragina izan duten jakiteko. Bestalde, beste udal batzuetan langabeziari aurre egiteko bultzatu diren ekimenak kontrastatu eta ahal den heinean gure herrian martxan jartzen ahaleginduko ginateke.

**ETXEBIZITZA**

Bereziki gazteei, lehen etxebizitzaren bila dabiltzanei eta premia ekonomikoa dutenei laguntzeko helburuarekin, lurrari buruzko politika berriak bultzatuko genituzke. Babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko esfortzu berezia egingo genuke eta, bestalde, etxeak alokairuan hartzeko baliabideak jarriko genituzke, etxebizitzaren parkea eginez.

**GIZARTE ONGIZATEA**

Pentsioak, osasuna eta hezkuntzarekin batera, gizarte ongizatearen laugarren hanka izan behar lirateke udaletako ongizate zerbi-

tzua. Beraz, legealdi honetan arlo honi garrantzia berezia eskaini nahi genioke. Etxean arazoak dituztenenei alojamendu alternatiboak eskainiko genizkieke, zaharrei laguntzeko neurriak bultzatu, etxez etxeko laguntza programa hobetu, zaharrak bizi diren etxeetan egokitzapen programak bultzatu, Eguneko zentruan plaza berriak eskaini... Bestalde, eskolatu gabeko gazteei zuzendutako bergizarteratze politikak abian jarri eta boluntarioritza bultzatuko genuke.

**KOOPERAZIOA**

Herrialde behartsuei, garatu gabekoei edota Hirugarren Mundukoei laguntzeko udal aurrekontuaren %1 eskaintzeko konpromisoa hartuko genuke. Legealdi honetako azken urtean %0,7 bideratu da eta, beraz, laguntza hori handitzeko prest gaude.

**INGURUGIROA ETA BIZITZA KALITATEA**

Ingurugiro arazoei aurre egin ahal izateko, Udal gobernuen gaitasuna indartu nahi dugu eta, honenbestez, belaunaldi berriei ingurugiro atseginagoa eskaintzeko neurriak bultzatuko genituzke. Ildo honetatik, ingurugiroarekiko sentsibilizazioa suspertzeko, hiritarren partehartzea bultzatzeko politikak jarriko genituzke indarrean.


**GAZTERIA**

Gazteen autonomia bultzatzeko neurriak ihartuko genituzke. Aisialdia euren modura igaro eta antolatu dezaten, herriko gazteen-tzat Gaztelekua abian jarri nahi dugu legealdi honetan.


**GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA**

Laneko eta familiako ardurak elkarrekin banatzeko, gizonen eta emakumeen arteko hitzarmena oinarrian izango duen Emakumearen gutuna proposatzen dugu.

**eboluzioa**







ANDRES DIEZ IU-EBko alkategaia

# “Irailean hartutako bideari eutsiko diogu, pakea lortzeko egokia da eta”

**G.** Iazko urriko Legebiltzarrerako hauteskundeetan IU-EBk bototan behera egin zuen. Batzuen ustez Lizarrako Akordioa sinatu izanak ekarri zuen beherakada hori. Zer deritzozu?

**E.** Aurreko hauteskundeetan inguruan euskal abertzaleen eta nazionalista espainiarren artean sortutako polarizazioak kalte egin zigun, horrelako kasuetan erdibideko alternatibak kalteak gertatu ohi dira eta. Hala ere, IU-EBk iazko irailean hartutako bideari tinko eutsi dio, pakea lortzeko bide egokia dela uste baitugu. Botoak galdu arren, erabaki zuzena dela konbentzitututa bagaude, aurrera egin behar dugula uste dut.

**G.** Beherako joera hori ekainaren 13ko hauteskundeetan berretsingongo dela uste duzu?

**E.** Azken hauteskundeetan botoa IU-EBri eman ziotenek oraingoan ere emango diotela uste dut. Alde batetik eta bestetik egurra jaso arren, orduan gudan konfidantza jarri bazu-

ten, oraingoan ere botoa eman- go digute. Legebiltzarrerakoetan, Bergaran ez genuen propagandarik banatu etxetik etxera, hala ere, 305 boto jaso genituen. Bestalde, tamalez, hauteskundeetan programak ez dira behar diren bezala azertu eta konparatzen. Nazio eraikuntzaren eta bakearen arazoa oso garrantzitsua dela onartuta ere, beste arazo batzuk baditu gizarteak, langabeziarena, esate baterako.

**G.** Euskal Herritarroek EMK, Zutik edo ezkerreko indarretako herritarrek biltzeak eragin diezaiokete IU-EBri?

**E.** Ez dut uste gudan eragingo duenik. Historikoki EMK eta Zutikek HBrendako eskatu dute botua; beraz, oraingoan gauzak ez dira larregi aldatuko.

**G.** Udala gobernua azken lau urteotan egindako lanari buruz zer iritzi daukazu?

**E.** Edozein herritarrek ikus dezake azken egunotan kale guztiak txukuntzen ari direla. Bes-

talde, kultur mailan eta dirua erabili dela atzematen da, kanpotik begiratuta behinik behin. Halere, Udala gobernua garrantzitsua eta herritarrekiko hurbiltasuna falta izan zaiola uste dut. Herritarrek ezin izan dute Udaleko erabakietan parte hartu eta, oro har, udala gobernua ez du herritarren parte hartzea bultzatu; alderantziz, herritari ateak itxi zaizkiola uste dut. Kalea politago edo txukunago izan dezakegu, baina herritarrek iritzirik ezin badezake eman, non dago demokrazia? Bestalde, Udalak hainbat proiektu faraonikori baietza eman izana ere ez dut egoki ikusten.

**G.** Alkate irtengo bazina, zer erabaki hartuko zenuke?

**E.** Orain dela lau urte esan nuen bezala, nire eta nire zinegotzi lankideen soldata jaitziko nuke. Bestalde, administrazioa demokratizatu egingo nuke eta, herritari begira, udal tasak jaitziko.

**G.** Zein da herriak une honetan duen premiarik nagusia?

**E.** Beste edozein herri bezala, langabeziaren arazoa konpontzea. Behin betirako lanpostuak sortuko dituen lantegientzat lur industrialara saritu edo merkatu beharko litzateke.

**G.** Zela konbentzitutako zenituzke IU-EBren ohiko botoemaile ez direnak, zuri botoa emateko?

**E.** Esango nieke alderdiak orokorrean erakutsitako jarrera eta linea politikoa kontuan izan dezatela botoa emateko orduan eta ez dezatela begiratu zeintzuk diren siglak.

**G.** Udala hauteskunderi begira zein da IU-EBren helburua?

**E.** Errealistak bagara, zinegotzi bat lortu dezakegula uste dut. PPK beste bat lortu dezake eta Udalbatza horrela osatu daiteke: EAJ-EAK 7 zinegotzi, EHk beste 7 eta PSE-EEK, PPK eta IU-EBk bana. Era honetako emaitza gertatuko balitz, oso interesgarriak izango lirateke gobernu osatzeko paktuak. **B**

“Herritarrei esango nieke alderdiak orokorrean erakutsitako jarrera eta linea politikoa

kontuan izan dezatela botoa ematerakoan eta ez dezatela begiratu zeintzuk diren siglak”



**D**onostian jaio zen, Zerrajeran lanean zihardutenen ume guztiak bezala, 1957ko abuztuaren 24an. Bi seme-alaba ditu eta separatuta dago. Martokon, Zubiaurren eta San Kristobalen bizi izan da. Gaztetan Zerrajeran lan egin zuen eta, dagoeneko, 18 urte daramatza Bergarako postetxean lanean. Horregatik eta xakearekiko duen zaletasunagatik ezaguna da herrian.

**alkate gaia GERTUTIK**

Mendian eta bizikletan ibiltzea, eskalatzea edota koba zuloetan ibiltzea gustatzen zaio. Aktualitateaz ondo

informatuta dago, lau egunkari irakurtzen baititu: Gara, El Diario Vasco, El Mundo eta El Pais. "Familian lau laguneren artean erosten ditugu eta, gero bata besteari pasatzen diogu". Bazkal orduan irakurtzen ditu. Musika oso atsegin du eta denetik entzuten du, azkenengoa "El último mohicano" filmearen soinu banda. Berak eta bere neska lagunak Xantia eta Ford Escort autoak dituzte. Asentzio ingurua da gehien gustatzen zaiona, "batez ere goiz partean, inor ez dagoenean". Kanpotar bati herriaren erdialdeko edozein txoko erakutsiko lioke eta nahiago luke Ertzaintzaren komisaria herrigunetik kanpo egongo balitz. Askatasuna da gehien baloratzen duen eskubidea.



## programa

### ETXEBIZITZA

Etxebizitza sozialak eraiki eta alokatzeko etxebizitzaren parke bat egitearen aldekoak gara. Estatu osoan eta Euskal Herrian %10 bakarrik dira alokatzeko etxebizitzak. Europako edozein herri aurreratuan, Danimarkan edo Alemanian esaterako, erdiak baino gehiago dira alokatzeko. Bergaran 800 etxebizitzatik gora dago hutsik eta horiei irtenbidea eman behar zaie, zaharkituak daudenak berritzeko laguntzak emanaz.

### GAZTERIA

Herriko gazteek arazo bat dute, alegia, biltzeko tokirik ez dutela. Zentzu honetan, Udalaren lokaletan dauden herriko beste taldeei bezala, gazteei ere bilgune bat eskaini behar zaie eta eurek antolatu dezatela nahi duten moduan.

### ONGIZATEA ETA LANA

Ongizate zerbitzua ezin daiteke Caritas bihurtu, ezin daiteke izan sosik ez duenari dirulaguntzak banatzeko zerbitzua, hori bai-

no gehiago izan behar da. Lanik ez dutenei laguntzeko gizarte soldata indarrean jarri behar da, baina, era berean, lana sortzeko politikak bultzatu beharko genituzke eta behin betirako lanpostuak sortzen dituzten enpresei laguntzak eman.

### KIROLAK

Behe mailako kirola bultzatu behar da eta, horregatik, herriko kirol taldeendako laguntzak handitu egin behar dira. Kirol taldeek gero eta premia gehiago eta diru gutxiago dute eta, ondorioz, apurka-apurka, kirola privatizatzen ari gara, gurasoek ordaindu egin behar dutelako euren haurrek kirola egin dezaten. Hori gertatu ez dadin, Udalak diru gehiago banatu beharko luke taldeen artean. Kirola osasuna eta eskubidea da.

### HEZKUNTZA

Arlo honetan, gauza gutxi egin dezake Udalak, Jaurlaritzak kudeatzen duelako hezkuntza. Halere, esan behar da, Euskal Eskola Publikoaren aldeko apostu garbia egiten duela IU-EBk. Eta, eskola publikoaren alde gauden bezala, zerbitzuak privatizatzearen aurka gaude: kale garbiketa zerbitzua, esaterako, publikoa izan beharko litzateke.


### KULTURA

Kultur mailan aberatsa da Bergara eta herriko taldeek euren jarduerak egin ditzaten beharrezko dirulaguntzak banatu behar zaizkie. Arazo nagusia azpiegitura izan daiteke eta horiek konpondu egin behar dira: ganorazko Udal Liburutegia, auditoriuma...

### AUZOAK

Kale gunetako auzoak eta herriaren erditik urrunago dauden nekazal gunek berdindin zaindu behar litzuzke Udalak. Bereziki mendi inguruetako auzoei lagundu behar zaie, horiek baitira Udalak ahaztuen dituenak eta azpiegitura kaskarrenak dituztenak.

## eboluzioa







# Hauteskundeok, Batzar Nagusietarako eta Europako parlamenturako ere bai

**Ekainaren 13ko hauteskundeetan 12.908 bergarrek izango dute botoa emateko eskubidea. Bost hautestoki izango dira: Seminarioan (Aranzadi Ikastolako geletan), Matxiategin (Irala ikastetxeko geletan), Martokoko haur eskoletan, Osintxuko liburutegian eta Labegaraietako elizaren ondoan. Guztira, 18 mahai eta 54 hautes-tontzi izango dira.**

Erdialdean eta Bolun bizi direnek Seminarioan jarritako 8 mahaietan eman ahal izango dute botoa. Matxiategikoentzat 4 mahai jarriko dira; Martokon, beste 4, joan zen urriko bozketetan baino bat gehiago. Osintxun eta Labegaraietan, azkenik, mahai bana jarriko da.

Ekainaren 13ko hauteskundeak ez dira Udalekoak bakarrik. Udalbatzaz gain, Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta Europako Parlamentua aukeratuko du-

te hautesleek. Beraz, hiru kartazal izango dira, hau da, hauteskunde bakoitzeko bat. Bergarako Udalbatza aukeratzeko kolore zurikoa izango da; Gipuzkoako Batzar Nagusietakoa, laranja kolorekoa eta Europako Parlamentukoa urdina.

## 17 ZINEGOTZI

Bergarako Udalbatza 17 zinegotzik osatzen dute. Udal hauteskundeetara bost zerrenda aurkezten dira oraingoan: EAJ-EA, EH, PSE-EE, IU-EB eta PP. Guztien zerrendaburuak bergararrak dira PPkoa izan ezik. Jose Luis Martinez Espronceda 42 urteko injineru donostiarra da PPko alkategaia. Besteenak: Victoriano Gallastegi (EAJ-EA), Jesus Mari Garitano (EH), Alvaro Esparza (PSE-EE) eta Andres Diez (IU-EB). Orain dela lau urteko udal hauteskundeetan zerrendaburu izan ziren hiruk errepikatzen dute oraingoan: Victoriano Gallastegik, Alvaro Esparzak eta Andres Diezek. HBren alkategaia Maite Ariste-

gi izan zen orduan eta Jesus Mari Garitano bigarren postuan joan zen; PPko alkategaia Fernando Vergarajauregi donostiarra izan zen 1995ko hauteskundeetan. Bestalde, esan beharrekkoa da orain dela lau urte EAJk eta EAK zerrenda bana aurkeztu zituztela eta oraingoran elkarrekin joango direla. Orduan Juan Mari Garitano izan zen EAKo zerrendaburu.

## BATZAR NAGUSIAK ETA EUROPAKO PARLAMENTUA

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako Deba-Urola barrutiko or-

dezkarriak aukeratu ahal izango dituzte Bergarako hautesleek. EHk Bergarako bi hautagai aurkezten ditu zerrendan: Balentin Gabilondo (hirugarren tokian) eta Jesus Mari Garitano (hamaseigarrenean). PSE-EEK, berriz, Jabier Zendoia (zortzigarren tokian). IU-EBk, azkenik, hiru bergarar aurkezten ditu Batzar Nagusietarako: Isabel Salud (lehen tokian), Andres Diez (hirugarrenean) eta Juan Manuel Garcia (zortzigarrean). Gainontzeko alderdien zerrendetan ez da bergararrak agertzen. **B**


## BERGARA GAUR EGUN

Biztanleak	15.241
Hautesleak	12.908
UDALBATZA	GUZTIRA 17 ZINEGOTZI


EA  
2 zinegotzi  
PSE/EE  
Zinegotzi 1

EH  
7 zinegotzi

EAJ-PNV  
7 zinegotzi







## Mariaren Lagundia Ikastola. Bergara

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK GIZARTE INTEGRAZIORAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

1999/2000 ikasturtea

Teknikari honek Gizarte Interbentzio sailean egingo du lan. Orokorrean edozein egitura edo erakunde publiko zein pribatutan jardun dezake, zeinak ekintza nagusizat Giza Interbentzioa edukiko duten.

• **SARRERA BALDINTZAK:**

Ondorengo ikasketetatik bat eduki behar da bukatuta:  
LOGSE Batxilergoa 2. maila, REM 2. zikloa, UBI, LH II.  
20 urte edukita: Sarrerako proba bidez.

• **IRAUPENA:**

1.700 ordu bi ikasturte eta zortzi modulotan banatuta.

• **MODULOAK:**

1. maila (1.100 ordu) eta 2. maila (600 ordu).

#### IZENA EMATEKO ETA MATRIKULAZIORAKO EPEAK:

Aurre-matrikulazio epea: Ekainaren 1etik 9ra.

Matrikulazio epea: Uztailaren 1etik 9ra.

Idazkaritzako ordutegia:

09:30-13:00 eta 14:30-17:30.

Espoloia 1 Bergara

Telefonoak: 943 76 25 40 / 943 76 25 41

Faxa: 943 76 33 31

E-mail: marilagikastola@clientes.euskaltel.es

Mariaren Lagundia ikastola. EIB Euskal Ikastolen Batzako Kidea.

**Udal**  
Hauteskundeak

# Bergararen alde ari gara lanean

**Andres  
Diez**

Begarako  
alkategaia





# UDAL EUSKALTEGIAK

## OPORRETAN ERE ZABALIK



Udako ikastaroak  
•  
Barnetegia

### 1999ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

#### **Eskaintza**

Euskalduntze maila guztiak,  
alfabetatze eta EGA

#### **Erritmoak**

Egunean 5 ordu, goizez.  
16 urtetik gorakoentzat.

#### **Bulego ordutegia**

Goizez: 09:00-13:00  
Arratsaldez: 15:00-19:00

#### **Ikastaroaren**

#### **iraupena**

Ekainaren 28tik  
uztailaren 23ra

#### **Matrikulatzeko epea**

Ekainaren 7tik 18ra

#### **BARNETEGIA**

Uztailaren 1etik 15era  
ZERAINen.



**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi 13

Telefona eta faxa: 943 76 44 53



**J**ose Blanco (22 urte), Alex Ugalde (24), Unai eta Peru Azkarate anaiak (19 eta 13 urte) eta Iñigo eta Iker Ugalde anaiak (24 eta 17 urte) taldean ibiltzen dira patinatzen. Herriko skaterrak ditugu. Bergaran patinetearekin ibiltzeko leku aproposik ez dutenez, askotan Arrasateko lagunekin batera Oñatira joaten dira taula gainean ibiltzera. Urte guztian zehar patinatzen dutela dioskue.

Alex eta Iñigo orain dela 10 bat urte hasi ziren Estatu Batuetatik datorren kirol honekin zaletzen eta herrian patinete gainean ibiltzeko gero eta zailtasun gehiago dutela esaten dute; "garai batean bazegoen herrian patinatzeko gune bat, U horietako bat jarri zuten Matxiategin baina kendu egin zuten eta hurrezkerok ez dute berririk jarri. Kanean ibiltzean ere badago kexatzen den jendea eta beraz kanpora irten beharrean aurkitzen gara askotan. Kanean patinetearekin ibiltzeagatik isunak jarriko zizutela entzun genuen eta egoera horren aurrean patinatzeko gune egoki bat jartzeko eskaera egin nahi genioke Udalari. Kiroldegian, adibidez, lekua soberan dago horretarako eta horrela ez genieke trabarik egingo kaletik pasiatzen ibiltzen direnei..., behin baino gehiagotan entzun izan ditugu eta herriarren kexak".

#### OREKA MANTENDUZ

Skateak hazkunde nabaria izan du azken urteotan. Modan dagoen kirola da eta gero eta gazte gehiago dira patinetearekin gora eta behera ibiltzen direnak. Hala ere, gure herrian egoera bestelakoa dela diote; "egia da Euskal Herrian gero eta jarraitzaile gehiago duela kirol honek, baina Bergaran ez da jende asko ibiltzen. Gaztetxo batzuk ibiltzen dira, baina beharbada patinatzeko gunerik ez egoteak ez du lagundu jarraitzaile kopurua handitzeko orduan" diosku Jose Blancok.

Peru Azkarate, Unai bere anaiak animatuta, duela gutxi hasi zen patinatzen. Bere klaseko lagunaren artean gutxi dira patinatzerara irteten direnak. Peru ia egunero irteten da patinetearekin eta izugarri gustatzen zaiola dio: "eguraldia ona bada, behintzat, patinetearekin irteteko ohitura daukat eta astebukaeran ordu gehiago sartzen ditugu, zapatu eta domeka arratsaldean batez ere. Ez da aparteko koaliterik behar, gorputza-

# Skaterrak

## Taula gainean jolasean



**Duela 15 bat urte gaztetxo asko ziren Telefonikako aldapan "sancheski"arekin gora eta behera ibiltzen zirenak. Gaur egun berriz ere modan jarri dira patineteak eta skateak hazkunde nabaria izan du. Herrian ere badugu skater talde bat. Batez ere astebukaerak aprobeztatzen dituzte taula gainean ibiltzeko. Dena den, herrian erraztasunik ez dutela eta, askotan Oñatira jo behar izaten dute euren gustoko kirola praktikatzeko.**

ARGAZKIAK: UGALDE





ren mugimenduekin oreka mantentzea da sekretu bakarra eta harrapatu egiten zaituen kirola da. Herrian, kalean ibili behar izaten dugu ez daukagulako pistarik. Poligonoko ikastolara ere joaten gara batzuetan eta han ibiltzen gara taldean saltoak eta horrelakoak egiten. Argi dago bizikletan ibiltzeko bidegorriak falta diren bezala, patinatzeke leku bat ere beharrezkoa dela. Hori kontpontzeko, alkateak zerbait egingo zuela esan zigun ikastolara etorri zen egun batean, baina, oraingoz behintzat, ez du bere hitza bete. Seminarioan ere as-

kotan kotxeak aparkatzen dituzte eta horrela ez dago modurik...".

### KALEKO SKATERRAK

Badira skatea bizitzeko modu bat dela diotenak ere. Tatuajeak, piercingak, janzkera bat edo musika estilo jakin batekin lotuta dagoela esaten du hainbatetik. Herriko skaterrak ez daude horrekin ados. Alex Ugaldere araber, "ez dut uste horrenbesterako denik. Guri mordo gustatzen zaigu patinetea, baina ez diogu horrenbesteko garrantzirik ematen. Janzkerarena, ostera, egia da

normalean praka zabalak eramaten direla patinatzeke, baina erosotasun kontua da, besterik ez. Biserak ere ez dira bakarrik skaterren kontua".

Jose Blancok esan digunez, "pena da Bergaran denda espezializaturik ez egotea. Orain urte batzuk baziren patinatzeke materiala saltzen zuten pare bat denda baina laga egin zioten horri. Normalean Gasteizera joan behar izaten dugu patinetearen piezak, aldizkariak, bideoak eta bestelakoak eroatera. Hori ere lagungarria izan zitekeen zaletu gehiago izateko". Inigo Ugaldere iritzi, "hori baino garrantzitsuagoa da skatea bultzatzea, txapelketak eta erakustaldiak antolatzea. Dena den, oso garestia izaten da horrelako probaren bat antolatzea eta talde bezala eratzeko gaudenez, ez daukagu horretarako indarririk. Donostian, Gernikan eta beste hainbat lekutan egiten dira probak eta maila handiko jendea joaten da. Baina gu geure kontura ibili izan gara beti, kaleko skaterrak gara".

### TEKNIKA MENDERATUZ

Estatuan badira patinatzetik bizi direnak, gutxi hala ere; Gasteizeko skater bat Estatu Batuetara, skaterren *mekara*, joan da hango zirkuitu profesionalan



*Badira skatea bizitzeko modu bat, janzkera edo musika estilo batekin lotzen dutenak. Herriko skaterrak ez daude horrekin ados.*







Bergaran patinatze leku egokirik ez dagoela diote skaterrek. Kanpora irteten ez direnean, Poligonoko ikastolan edo San Lorentzoko industrialdean aritzen dira saltoak eta horrelakoak egiten.

probatzera; "guretako ezinezkoa da maila horretara iristea, egunero patinetearekin ibili beharra daukazu eta hemen oso zaila da hori. Hiriburuetan tradizio handiagoa dago eta maila hobeko skaterrak egoten dira" dio Alexek.

Ikasteko modu bakarra jardutea da. Jose Blancoren arabera, "gogoia izan eta ahalegindu beharra dago, besterik ez dago. Ez da lotsarik izan behar patinetean, ausarta izan behar da. Jausi? Arriskua hor dago, baina beldurrez ezin da ibili. Eskuetan eta hanketan mina hartu izan dut behin baino gehiagotan, baina hori kontuan hartu behar duzu, badakizu lehenago ala geroago erori egingo zarela. Gu bideoetatik ikasten ere saiatzen gara eta piskanaka-piskanaka teknika gero eta hobeto menderatzen duzu. Lagunen gomendioak ere ondo etortzen dira, batek ikasitakoa besteari erakusten saiatzen gara".

#### TRADIZIO HANDIRIK EZ

Skatea, snowboarda eta surfa familia bereko kirolak badira ere, herriko skaterrek ez dituzte beste biak praktika-

tzen. Klean patinatzearekin nahikoa dute eta ahal duten guztietan irteerak egiten dituzte. Aste Santuan zenbait Landetan egon ziren.

Etxean, hala ere, askotan entzun dute umekeriak ahazteko. Jendeak orokorrean ez dituela ulertzen somatzen dute. Peruk esaten digunez, "ez dute ikusten beste kirol mota bat dela eta ez dagoela adin mugarik patinetearekin ibiltzeko. Badira skater profesionalak ere eta jendeak ez du hori ikusten, hemen patinetean aritzeko tradizioz dago eta ezjakintasun handia dago".

Hiru hilabetetik behin-edo patinetearen taula aldatu behar izaten dute. Normalean patinetea piezaz pieza erosten dute eta 22.000 pezeta inguru balio izaten du patinete on batek. Horrez gain, beharrezkoak dira zapatila on batzuk. Taulako lixaren erruz, zapatilak berehala gastatzen dira. Herriko skaterrek ez dituzte ukalondokoak eta be-launekoak erabiltzen, horiek U formako pistetan erabiltzen direlako nagusiki. Herriko skaterrek Bergaran kale zirkuitu bat izateko itxaropena dute. **B**



*Hiru hilabetetik behin-edo patinetearen taula aldatu behar izaten da. Patinete on batek 22.000 pezeta inguru balio du gaur egun*

**MUJIK** **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**  
**FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

**ETXEBERRIA**


**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



## I P I N T Z A K O

## futbol txapelketa



## partiduak

## NESKAK

## Eguakitza 4

## Kadeteak

19:00: Las 43-Aupa

19:00: EKA-Aldrebesak

## Nagusiak

20:00: Onenak-Elgetako taldea

20:00: Lai Lai Lai-Biko

21:00: Azkenak-Baleike

21:00: Zutaz Pentsatzen/Pentol's Team

## MUTILAK

## Zapatua 5

08:45: Black &amp; Decker-La Juve

10:00: Gore-Game Over

11:15: Arloteak-Fatxurtu

12:45: Matxakategi-Mongatxurak

## Astelehena 7

19:15: Altos Pornos-Mokolotov

20:30: Manitou-Amilotx

## Martitzena 8

19:15: Euskal Beccia-Toyhu

20:30: Bildurbarek Opel/Lam-Etengabe

## Eguaztena 9

19:15: A Ze Flaxa/ La Guipuzcoana-Angiozar

20:30: Osintxu-Fo Fo Fo

## Eguena 10

19:15: Mongatxurak-Manitou

20:30: VTA-Txokokuak

## emaitzak

## MUTILAK

La Juve-Angiozar ..... 0-12

Fatxurtu-Txokokuak ..... 5-1

Mongatxurak-Fo Fo Fo ..... 5-0

Mokolotov-Black &amp; Decker ..... 2-3

Game Over-Ezinleike ..... 0-3

Amilotx-Matxakategi ..... 1-0

Toyhu-Arloteak ..... 0-4

Etengabe-Gore ..... 1-4

Altos Pornos-A Ze Flaxa/Guipuzcoana ..... 1-2

## jokoz kanpo



**Jose Luis Beitia**  
ANTOLATZAILE  
BATZORDEKOA

**G.** Zer aipatuko zenuke txapelketatik?

**E.** Aurten inoiz baino talde gehiagok eman duela izena. Mutiletan 23 talde daude eta nesketan berriz, 13 bi mailatan banatuta.

**G.** Gizonezkoen partiduak noiz eta nola jokatu dira?

**E.** Astelehenetik eguenera. Talde asko dela eta, partidu batzuk zapatuan ere jokatu beharko dira. Bestalde, talde bakoitzak marrazaina jarri beharko du jokatu ondorengo partiduan. Arazoak izan ditugu jendea lortzeko garaian eta azkenean erabaki hau hartu da. Finala uztailearen 23an jokatu da.

**G.** Zola doa nesken txapelketa?

**E.** Gaur jokatu dira lehen partiduak 20:00etatik aurrera. Bigarren urtea da eta sekula baino neska gehiago dago txapelketan. Lagunak taldea aipatuko nuke. Kadete mailan jokatzeko adina dute baina Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten eta federatutako hiru jokalaririk dituztenez, nagusien mailan arituko dira aurten. Horrela, kadeteen maila parekatuago gelditzen da.

**G.** Nesken partiduak egun bakarrean jokatu dira?

**E.** Bai, eguakitzetan eta finala uztailearen 16rako iragarri da.

## gora eta behera



## Hiru golegile nagusi

Lehen partiduan hiru jokalaririk izan dira hiru gol egitea lortu dituztenak. Xabier Zangitu, Mongatxurak taldekoa, eta Igor Agirrezabal eta J.A. Arriaran Angiozar taldekoak. Angiozar taldekoek 12 gol egin zituztuen La Juveri, La Juvekoek 2 jokalaririk gutxiago zituztela.



## Partidu bateko zigorra

La Juveko jokalaririk bat partidu bat jokatu gabe geldituko da Antolaketa Batzordearen erabakiz. Jokalariak, aurkako taldeko beste jokalaririk bat iraindu eta astitze-ko ahaleginak egin zituen.

## sailkapenak

## A multzoa

	P	J	GA	GK
1. Fatxurtu	3	1	5	1
2. Arloteak	3	1	4	0
3. Toyhu	0	1	0	4
4. Txokokuak	0	1	1	5
5. VTA	0	0	0	0
6. Euskal Beccia	0	0	0	0

## B multzoa

	P	J	GA	GK
1. Mongatxurak	3	1	5	0
2. Amilotx	3	1	1	0
3. Matxakategi	0	1	0	1
4. Fo Fo Fo	0	1	0	5
5. Mokolotov	0	0	0	0
6. Manitou	0	0	0	0

## C multzoa

	P	J	GA	GK
1. Angiozar	3	1	12	0
2. Black & Decker	3	1	3	2
3. A Ze Flaxa/La Guipuzcoana	3	1	2	1
4. Mokolotov	0	1	2	3
5. Altos Pornos	0	1	1	2
6. La Juve	0	1	0	12

## D multzoa

	P	J	GA	GK
1. Gore	3	1	4	1
2. Game Over	1	1	0	0
3. Ezinleike	1	1	0	0
4. Etengabe	0	1	1	4
5. Bildurbarek Opel/Lam	0	0	0	0

## Neskek, kadeteak

	P	J	GA	GK
1. Baleike	0	0	0	0
2. Azkenak	0	0	0	0
3. Eka	0	0	0	0
4. Lab 43	0	0	0	0
5. Aupa Aldrebesak	0	0	0	0

## Neskek, nagusiak

	P	J	GA	GK
1. Potzu	0	0	0	0
2. Lai-Lai-Lai	0	0	0	0
3. Pentol's Team	0	0	0	0
4. Elgetakoa	0	0	0	0
5. Zuzaz Pentsatzen	0	0	0	0
6. Onenak	0	0	0	0
7. Biko	0	0	0	0

## golegileak

1. Xabier Zangitu	Mongatxurak	3 gol
2. Igor Agirrezabal	Angiozar	3 gol
3. J.A. Arriaran	Angiozar	3 gol
4. Igor Larrañaga	Gore	2 gol
5. Jon Aranburu	Fatxurtu	2 gol
6. Ibai Elortza	Angiozar	2 gol



# Gorlako IX. Igoera Telefonica Sari Nagusia domekan

## 50 auto inguru izango dira Gorlara bidean

Domekan jokatuko da Bergara Racing taldeak antolatutako Gorlako kotxeen IX. Igoera 11:30-etatik aurrera. Dagoeneko ezaguna den bost kilometroko ibilbidean, Aitor Zabaleta izango da faborito nagusia bere Lola BMWaren gidari dela. Aipagarria da Telefonica enpresa dela aurtengo edizioaren babesle nagusia.

Iaz, Gorlako kotxeen igoera berreskuratu egin zuten Bergara Racing taldekoek eta, dirudienez, igoerak beste hainbat urtetan jarraitzeko itxura du. Antolatzaile lanetan ibili den Juan Mari Aranzabalek adierazi digunez, "joan zen urtean bezalaxe lasterketa antolatzeko laguntza izan dugu, aldaketa batzuk izan badira ere. Bergarako jaien ostean, lasterketa klasikoa izatea nahi dugu. Herri lasterketa bat da baina, Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria ere bada, ondorioz, Euskal Herri mailan zerbait egiteko asmoa dutenek, itxuraz aritu beharko dute Gorlan. Barketez gain, maila handiko kotxe berriak datoz: Turbo 2, Mitsubishi, Evo 5, Deltona, M3, Ax, Saxo...".

50 automobil inguru izango dira Gorlako aldapa igoko dutenak eta horien artean Hernandez eta Bretona bergararrak izango dira. Sarietako dagokienez, esan dezagun milioi bat pezeta banatuko dela guztira.



Bergara autoen topaleku bihurtuko da zapatuan eta domekan.

### ZABALETA TXAPELDUN IZATEKO GERTU 3. ALDIZ

Faborito nagusia Aitor Zabaleta izan arren, Gorlako IX. Igoerara bilduko diren artean maila beretsua dutenak ere badira, besteak beste, Navedo asturiarra eta Maillo andaluziarraren baraketak gerturatuko dira. Hala ere, ez dugu Vilariño eta Zabaletaren arteko norgehi-

goka ikusterik izango, Aitorrek, Andres Vilariño ez dela etorriko adierazi digu eta.

Jaizkibeletako igoeran Europako laugarren eta Estatu-ko bigarren gelditu ondoren, Zabaletak Gorlako sari nagusia lortzeaz gain, iazko 2:56:57 errekorra hobetzeko asmotan dabil. "Gogo handiz nabil bai Gorlako Igoera eta bai Euskal Herriko txa-

pelketa irabazteko. Telefonica enpresa dut babesle eta bere erabakiz, aurtun Euskal Herriko txapelketara mugatu behar izan dut. Pozik nago ez baitut kanpora joan beharrik izango". Txapelketari dagokion hurrengo igoera Udanan jokatuko da uztaialaren 4an.

Zapatuan, igoeran arituko diren kotxeen azterketa izango da plazan 17:00etatik 20:00ak arte. Domekan 09:00etatik aurrera Boluko aldapa kotxez gainezka ikusiko dugu eta Gorlako bidea itxi egingo dute. 10:00etatik aurrera entrenamendu saioak izango dira. 11:30etan lehen saio ofiziala hasiko da eta 12:45tan bigarrena. Iaz bezalaxe, sari banaketa San Martin plazan izango da 14:30etan. **B**



**"Gogo handiz nabil Gorlako Igoera eta Euskal Herriko txapelketa irabazteko".**

**AITOR ZABALETA**



## KARTELDEGIA

## PILOTA

BERGARA HIRIA SARIA  
FINALERDIAK

## Promesak

- Etxabe - Arrieta/  
Eraunskin - Retegi  
Martitzena, 19:30  
Pilotalekuan
- Muguruza - Mendiluze/  
Irazoki - Tirapu  
Eguena, 19:30. Pilotalekua

## Afizionatuak

- Muru - Iñurrategi/  
Urretabizkaia - Errandonea  
Martitzena, 19:30  
Pilotalekuan
- Arbizu - Errasti/  
Samaniego - Iparragirre  
Eguena, 19:30. Pilotalekua

## ARETO FUTBOLA

FINALERDIAK

Bergara Lagunak-  
Colegio Aleman

Domekan. 10:30. Labegarieta

## Medikuntza zerbitzua eskaririk gabe orain arte



Edurne Jimenez, medikuntza zerbitzuko arduraduna.

**Deba Garaiko** kirol medikuntza zerbitzua martxan da dagoeneko baina oraindik ez du bergarar kirolarien aldetik eskaririk jaso. Edurne Jimenez zerbitzuaren arduradunak adierazi digunez, "gauza poliki-poliki doa. Bulegoa Udal Biltzean dago eta eskaintzarik ez dagoela kontuan hartuta oraindik ez ditugu bertara beharreko tresnak eraman". Edurne erizaina da eta bes-

teak beste, ondorengo zerbitzuak eskainiko ditu: oinarrizko mediku-azterketak Bergaran, eta mediku azterketa osoak eta esfortzu probak, lesioen tratamendua, dietak eta entrenamenduen kontrola, Arrasaten. Bergarrek azterketan 1.000 pezetako deskontua izango dute. Zerbitzu hauek jaso nahi dituztenek 943 77 16 77 telefonoan eskatu beharko dute txanda.

## Uda kanpaina ekinetik aurrera

**Martitzenean** zabaldu zen 99ko Uda Kanpainan parte hartzeko izena emateko epea. Kanpaina hiru txandetan banatuko da; ekainaren 21etik uztailaren 2ra; uztailaren 5etik 16ra eta uztailaren 19tik 30era. Kanpainak hainbat kirol jasoko ditu, besteak beste, igeriketa, waterpolo, aerobic-a, tenisa, golfa... Adin guztiei zabaldua dago, nahiz eta kirol bakoitza adin jakin bati zuzenduko zaion. Izen ematea eta argibide gehiago, Udal Kirol Zerbitzuan, 7:30etatik 13:30etara nahiz 943 77 91 67 telefonora deituz.

## Bergara Hiria pilota txapelketa finalerdietan

**Bergara Hiria** Pilota txapelketa finaldietetara iritsi da dagoeneko. Promesa mailan, Muguruza eta Mendiluzek jokatutako azken partidua 22-8 irabazi zuten Antxia eta Peñagarikanoren kontra eta, ondorioz, eguenean jokatuko den finalerdirako sailkatu dira. Finalerdia, Irazoki eta Tirapuren kontra izango dute. Afizionatuak dago kienez, Muruamendiarrak eta Iñurrategi, Urretabizkaia eta Errandonearen kontra jokatuko dute martitzenean eta eguenean, Samaniego eta Iparragirre, Arbizu eta Errastiren aurka ari tuko dira. Finala hilaren 18rako iragarri da.

### JOSE MARI ARANBURU/ Futboleko kadeteen entrenatzailea

## "Gizatasuna da baloratzen dudana"

**BKEko lehen mailako kadeteen entrenatzailea izan da. Hiru urte daramatza talde bera entrenatzen. Bergara, Sanse eta Lagun Onak taldeetako jokalaria izan zen bere garaian. Joan zen asteburuan Kopako finalerdia jokatu zuten Eibarren kontra baina 0-1 galdu zuten. Dena dela, kadeteek jubeni mailan jokatuko dute datorren denboraldian.**


**G.** Zela joan zen partidua?

**E.** Jokalariak oso ondo aritu ziren partiduan zehar. Zorte handirik ez genuen eduki eta azken minutuetan sartu ziguten gola. Irabazteko aukera garbiak izan genituen, baina...

**G.** Denboraldia amaitu berri dela egiguzu errepasoa.

**E.** Aurreko postuetan izan gara. Ondarroako Aurrera eta Lagun Onak izan dira talde gogorrenak. Taldean sekulako giroa dago eta jokalarien portaera primerakoa da. Taldeak lortzen dituen emaitzak baina, pertsonen gizatasunari ematen diot garrantzia. Pedro Jausoro ere entrenatzaile lanetan ibili da. Lan handia egin du.

**G.** Datorren urteari begira zela ikusten duzu taldea?



**E.** Ondo. Primerako jokalariai daude, baina oraindik ez dut erabaki entrenatzen jarraituko ote dudana.

**G.** Kadeteen partiduetan jarraitzaile izaten da?

**E.** Gurasoak eta lagunak. Zuzendaritza batzordetik oso gutxi izaten dira partiduetan. Presidenteak ez du gure partidu bakar bat ere ikusi eta ez gaitu igotera lortzeagatik zoriondu ere egin.

**G.** Eutsiko dio Bergarak hirugarren mailari?

**E.** Bai. Oraingo taldea/gogorra da eta giro bikaina dago.



## Bergarak txapeldunen kopa jaso zuen

**Juan Luis Larrea** Gipuzkoako Futbol Federazio-ko presidentek, hirugarren mailara igotzearen lortu duen kopa eman zion zapatuan BKEko futbol talde nagusiari. Aurretik herriko dantzariak aureskua eskaini zioten taldeari. Udalak bere aldetik, plaka oroigarria eman zion Gipuzkoako Preferenteko txapeldunari. Bergarak, Urolaren kontrako azken partidua 2-2 berdindu zuen eta, ondorioz, denboraldia etxean galdu gabe amaitu du.



Goian, Markel Egaña Bergarako kapitaina federazioko kopa jasotzen. Behean, Bergarako Udalak futbol taldeari eginiko harrera.

## Binakako X. Pala Txapelketa

**Zapatuan** eman zitzaion hasiera Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu duen Binakako X. Pala Txapelketari. Partiduak Osintxuko pilotalekuan jokatzen dituzte. Bestalde, Kirol Zerbitzuak adierazi duenez, izena emateko epea luzatu egin da ekainaren 9rarte. Izen ematea 943 77 91 67 telefonoan edo Udal Kirol Zerbitzuan.

## Xake asteburuko emaitzak

**Zapatu** eta domekan, hainbat xake txapelketa jokatu ziren Bergaran. Euskadiko selekzioak 6-4 irabazi zion Asturiasekoari. Bergara Hiria txapelketan, guztira 60 partehartzaile bildu ziren eta lehen postua Iruñako Oberena taldeak lortu zuen, 23 punturekin. Euskadiko txapelketan 50 xake jokalarri bildu ziren eta Durangoko Larrasoloeta izan zen garaile, 23,5 puntu lortuz. Lagunarteko elkarten txapelketan, berriz, Portugalete izan zen txapeldun 22,5 punturekin.

## Labegaraietako finalak

**Domekan** jokatu ziren Labegaraietako finalak. Ligako finalean, Bildurbarek taldeak galdu egin zuen 3-5 Errotagainen kontra. Kopan, berriz, Canalejasek 6-2 irabazi zion Pagomendiri. Partiduen ostean sariak jaso zituzten. Txapeldunen finala, zapatuan 19:00etan jokatuko dute Errotagainen eta Canalejasek.



**OILAGORRA  
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



**Matxiategi  
Elektragintza  
C.B.**

**ELEKTRIZITATE  
MATERIALEN  
SALMENTA ETA  
INSTALAKUNTZA**

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94



**BOKATEGIA**

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Pisua salgai Huelvan, ga-  
rajearekin. 943 76 40 25.

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amuebla-  
tua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua  
salgai. 943 76 23 12.

Martoko. 943 76 37 21.

Alicanten, plaiian. 10,5  
milioi. 965 14 18 90.

Soraluze. Berriztua. Amu-  
eblatua. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

Etxe berriztua Urteagan,  
130 m<sup>2</sup>. 943 76 08 79  
(19:00etatik aurrera).

Pisua salgai Masterre-  
kan. 943 76 47 13.

Antzuolan, beheko au-  
zoan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiau-  
rren. 943 76 11 13.

Pisua salgai Zubiaurren.  
943 76 49 30.

Irizar. 943 76 21 10.

Martokon. Amueblatua.  
943 76 19 22.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen.  
Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatua  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktua  
Deiak  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Lokala San Pedron.  
943 76 10 39.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Nekazal lursaila (2.000  
m<sup>2</sup>koa) alokairuan har-  
tuko nuke. 943 76 26 79.

**4. LANA**

**ESKAINZAK**

Etxe lanak edo hau-  
rrak zaindu. Esperien-  
tzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da  
lanerako. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurrak  
zaindu edo etxeko lanak.  
943 76 46 07.

Mutila txakurrak pasia-  
tzera ateratzeko.  
943 76 29 95.

Neska edozein laneta-  
rako prest. 943 76 35 38.

Emakumeak etxeak gar-  
bitu edo zaharrak zain-  
du. 943 76 09 33.

Arratsaldez lan egingo  
nuke. 943 76 52 39.

Astebukaeretan taber-

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Koldo Elizalde 36an.  
943 76 36 34.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Aranerreak. 943 76 28 07.

Martzial Agirren garaje  
bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alo-  
katzen da. 943 76 40 03.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

K. Gallastegi.  
943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea alokairuan  
hartuko nuke.  
943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke.  
943 76 05 17.

Bidekurutzetan 250  
m<sup>2</sup>ko ganbara salgai.  
Deitu 943 76 21 80  
telefonora.

**EROSI**

Bergaran etxea erosiko  
nuke. 617 072 595.

Toki-Eder inguruan  
pisua erosiko genuke.  
Deitu 943 76 04 88  
telefonora (gauzez).

**ERRENTAN EMATEKO**

Pisua alokairuan Simon

Arrietan. 943 76 31 79.

Zarautz (abuztuan ez).  
Deitu 943 76 42 05  
telefonora.

Apartamentua Laredon.  
943 76 44 34.

Pisua alokairuan 2 edo  
3 lagunendako Artza-  
mendin. 943 76 06 25.

**ETXE KONPARTITUAU**

Beste norbaitekin pisua  
konpartituko nuke irail-  
etik aurrera. 943 76 38 76/  
03 53 (Shane).

**Tabernan  
zerbitzari  
egiteko  
neska behar da**

**943 76 47 23**



**Bolu**  
*liburutegia*

**Enmarkazioak**  
**Ispiluak neurria**  
**Zurezko artikulua**  
**Bergarako oleo eta**  
**lumatxoak**

Koldo Elizalde 1, behea  
Tf. 943 76 70 60

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**


ARROZLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**POL-POL**

**Taberna**

☎ 943 76 07 78





nari lanak egingo nituz-  
ke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak  
zaindu edo dendan lan.  
943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko la-  
nak edo atariak garbitu.  
619 52 98 04.

Emakume esperientzia-  
dunak dendan lan egin-  
go luke. 943 76 07 69.

Udan, umeak zaindu,  
etxeak garbitu edo  
tabernari lanak. 943  
76 39 68 (Aitziber).

**ESKAERAK**

Umeak zaindu eta etxe-  
ko lanetarako neska be-  
har da. 943 76 52 71.

Emakumea behar da  
abuztuko lehen hama-  
bostaldian elkarte bat  
garbitzeko. 639 47 25 84.

Etxeko lanak egin eta  
haurrak zaintzeko neska  
euskalduna behar da.  
943 76 31 11.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizen-  
tziatuak klaseak ematen  
ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak.  
943 76 33 26.

Ingeles klaseak ematen  
dira. Esperientzia.  
943 76 51 23.

Klase partikularrak  
ematen ditut.  
943 76 17 57 (Rebeka).

Ingeles klaseak.  
943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak.  
943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak.  
943 76 37 94.

Hezkuntza berezian  
diplomatua klaseak  
ematen ditu uztailean  
eta irailan.  
943 76 31 79.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Citroen C25 furgoneta,  
bolumen handikoa.  
943 76 28 93 (gauze).

Fiesta 1300 (SS-W) pre-  
zio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra  
salgai. 943 76 31 52.

Golf GTI (SS-AG) kotxea  
salgai. 943 76 05 96.

Aprillia Klimber motorra

salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela.  
617 20 66 29.

Renault 11 GTL kotxea  
salgai. 125.000 pezeta.  
Egoera onean.  
943 76 37 82.

Yamaha 600 Diversion  
motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea.  
943 76 29 29.

GAC motorra (50 cc.).  
943 76 49 30 (Igor).

Ehiztariendako Lada Ni-  
va 4x4. 680.000 pta.  
943 73 15 57 (Beñat).

Suzuki GSX 750 F moto-  
rra prezio onean salgai.  
610 20 82 78.

Renault 19 TXE 1.7.  
Aire egokitua. 250.000  
pezeta. 943 76 19 56.

Volkswagen Combi fur-  
goneta. Guztiz ekipatu-  
ta. 943 71 49 15.

**7. ANIMALIAK**

**OPARITU**

Bi urteko kanario emea  
opari. 943 76 34 19.

Katakume grisak opari.  
943 76 33 12.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Mendiko bizikleta.  
Deitu 943 76 10 80  
telefonora.

Eskopeta paralela  
salgai. 943 76 37 25.

Kristalezko salmahaiaik  
eta kutxa erregistratzi-  
alea. 943 76 21 81.

Pisu elektronikoa (5 kg.)  
eta erlojuko pisu bat  
(25 kg.). 943 76 17 24.

Bigarren eskuko ordena-  
gailuak. 943 76 28 68/  
76 12 52 (21:00-22:00).


Sukaldeko Fagor kanpaia  
salgai. Prezio ona.  
943 76 47 82.

Kotxe kapota, moisesa  
eta haurrentzako aulkia.  
Deitu 943 76 19 09  
telefonora (gauze).

**GALDU**

Pazkuetako martitzean  
argazki makina galdu  
nuen barraken inguruan.  
Deitu 943 76 18 56  
telefonora.

Urrezko pultsera harri  
gorriduna. Sarituko da.  
Deitu 943 76 48 95  
telefonora.



**Langai**  
Euskal Lan Zerbitzua

**TORNULARIA**  
Donostialdea. 20061/2

**GALDARAGILEA**  
Ibaizabal. 20075/2

**ARRAINDEGIRAKO  
DENDARIA**  
Galdakao. 20077/2

**GIMNASIA  
MONITOREAK**  
Ermua. 20180/3

**KOMERTZIALA**  
Euskal Herri osoa.  
19948/4

**ESKAIOLISTAK, 2**  
Arratia-Nerbioi. 18496/4

**PIOI  
ENKOFRATZAILEA**  
Urola bailira. 20000/1

**IGELTSEROAK, 2**  
Ibai ezkerrean.  
20004/1

**LH II GESTIO  
INFORMATIKOA edo  
ELEKTRONIKOA**  
Bilbo. 19513/1

**EKONOMI  
LIZENTZIATUA**  
Donostia. 19638/2

**OBRABURUA**  
Bilbo. 20021/1

**LH II ELEKTRONIKOA**  
Ibai ezkerrean.  
20041/1

**EXTRUSORE  
LAGUNTZAILEAK**  
Donostialdea.  
18017/2

**FLEXOGRAFIA  
INPRESORA**  
Donostialdea. 18018/1

**TABERNARIA**  
Gernika. 18131/4

**ILEAPAINTZAILE  
OFIZIALA**  
Bilbo. 19081/3

**PRENTSETARAKO  
PIOIA**  
Mungia. 19478/4

**SISTEMA  
TEKNIKARIKAK, 2**  
Bilbo. 19508/4

**Lan eskaintza hauetakoren bat  
interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



**KENSINGTON**

HIZKUNTZ ZENTROAK

Ohar honen bidez aditzera eman nahi dugu  
irailaren 15ean hasiko diren ikastaroetarako  
(6 urtetik gorakoei zuzenduak)  
leku gutxi geratzen dela.  
**Matrikula epea ekainaren 11ra arte.**  
Bulego ordutegia: 17:00-19:00.

Eguzki auzoa 7  
ANTZUOLA  
TF. 943 78 70 30

**GOIERRI** AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA  
**Goñatiko b.h. institutua**  
99-00 Aurrematrikula

**BATXILERGOAK: ("A"- "D" EREDUAK)**

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIKOA

**HEZIKETA ZIKLOAK ("D" EREDUA)**

- Erdi Maila:
  - Mekanizazioa
  - Landa inguruneak
  - Gorputz Kirol
  - Ekintzak Gidatzea
- Goi Mailakoa:
  - Gizarte eta
  - Kultur animazioa

**IZEN EMATEKO EPEA:**  
Ekainaren 1etik-9ra  
TOKIA:  
Larraña ikastetxea  
Tel.: 943 78 21 50  
Faxa: 943 78 19 08



# HIESaren inguruan, Ibai Garciak marraztutako komikia argitaratu du Hies Ekimena taldeak


Tunantes del Norte taldearen "Soo Bitxo" lanean oinarrituta dago

Hies Ekimena HIESaren aurkako Deba Garaiko batzorde hiritarrak, gaisotasunaren inguruko komiki bat argitaratu berri du. Arrasateko Tunantes del Norte antzerki taldearen "Soo Bitxo" antzezlanean oinarrituta, Ibai Garciak marraztu du.

DIN A4 formatoko 16 orrialdetako aldizkarian bil-tzen da komikia. Gotiko estiloko marrazkiak dira, tinta bakarrean inprimituta, azala izan ezik, koloretan baitoa, eta euskaraz idatzia dago. Esan bezala, orain dela urte batzuk Tunantes del Nortek Hies Ekimena taldearentzat prestatutako antzezlanean oinarrituta dago komikia. HIESaren inguruko istorioa kontatzen da antzerki lanean eta gaitza ez hartzeko neurriei buruz jarduten zaigu, gizartearekin kritiko azalduz. Antzerki lanerako gidoia, Iñaki Telleriak egin zuen eta komikirako moldaketa ere bai. Karmelo Uribarrenek euskaratu du testua.

## HIESAREKIKO KONTZIENTZIA

Gazteek gaitzarekiko kontzientzia har dezatela da Hies Ekimenaren helburua



Hies Ekimena taldeak argitaratu duen "Soo Bitxo" komiki aldizkariaren azala.

eta, gazteengana heltzeko erabili dute, hain zuzen, komikia. Hies Ekimenaren asmoa, herriz herri, ikastetxez ikastetxe eta gaztetxeetan aurkeztea da eta, ho-

rrekin batera, HIESari buruzko kanpainak antolatzea.

Esan behar da komikia argitaratzeaz gain, Deba Garaiko osorako komiki lehiaketa ere antolatu duela lehen aldiz Hies Ekimenak. Guztira 55 lan aurkeztu dira eta hainbat bergarrek lehiaketan parte hartu badute ere, ez dago saritutakorik bergarren artean. Hiru maila bereiztu dira: 15 urtera artekoa, 15 urtetik 18 urtera bitartekoa eta 19 urtetik aurrerakoa. Lan gehienak ikastetxetatik bidali dituzte, hainbat eskolatan komiki tailerrak antolatu baitira. Hori dela eta, partehartzaile gehienak gaztetxoak izan dira.

## GAITZARI BURUZKO INFORMAZIO ESKASA

Lehiaketaren gaia HIESaren prebentzioa izan da eta lanak saritzerakoan marrazkien kalitateaz gain, mezuak ere garrantzia handia izan du. Gazteek gaitzaren inguruan duten informazio eskasak apur bat kezkatu egin ditu epai mahaiko kideak eta, horregatik, eskoletan gaia atzertu dezatela eskatzen du-

te Hies Ekimena taldekoek. Edozein modutan ere, aurkeztutako lanekin erakusketa ibiltaria antolatuko dute bailarako herrietan zehar. **B**



OZAETA JAUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



**LASA**  
Jatetxea

RPS: 292/98



**NARE**  
psikologoak

HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR  
Tf. 943 20 05 95



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA



# NCC, Señor No eta Factoria 77

## Punk-rock azkarra Jamen zapatu gauerako

**Nuevo Catecismo Catolico eta Señor No, punk-rock azkarra egiten duten gaur egungo talderik interesgarrienak, Jam aretoan izango ditugu zapatuan, gaueko 10etatik aurrera; eurekin batera, Factoria 77 bergararrak izango dira. Emanaldirako sarrerak 1.300 pezetan salduko dira.**

Nuevo Catecismo Catolico eta Señor No Donostiako Buenavistako faktoriako ordezkari nagusiak dira. Bi taldeak, punk eta rock and roll azkarreko talde aitzindaria izan zen La Perrera de-segin ostean sortutakoak dira. Bergaran jarraitzaile ugari dituzte eta herriko hainbat antzokitan egonak dira.

Aste honetan argitaratu den bosgarren diskoa aurkeztuko du Nuevo Catecismo Catolico taldeak. "Pohell and back" izenburuko lana, 10 pulgadako binilo formatoan eta CDan argitaratu du Punch Records zigiluak. Betiko ildo

beretik datorkigu lan berri honetan NCC. Señor No taldeak, oster, orain dela hilabete batzuk eman zuen argitarara bere hirugarren iraupen luzekoa, "No me hables" izeneko. Asko dira Xabi, Mikel, Imanol eta Andoniren zuzeneko bortitza ikusteko gogoz irrikatzen daudenak. Xabi, taldeko abeslari eta kitarrajolea, sarri ikusteko aukera izan dugu Bergaran, Javier Sun-ekin batera "Las Brujas" bikotea osatuz. Oraingoan, halere, ez digu emanaldi akustikoa eskainiko.

NCC eta Señor No taldeekin batera, Bergarako Factoria 77 taldeak joko du. Azkenaldian jo eta ke entsaiatzen ari dira eta ilusio handiarekin taularatuko dira. Bergarako jaietako lehenengo egunean Bideberrin jo zuten, baina ez ziren emanaldiarekin oso gustora gertatu, greba eguna izan zela eta, kontzertua atzeratu egin zelako eta goizaldeko 5ak inguruan jo zutelako.



Señor No taldeak bere azken diskoa "No me hables" aurkeztuko du zapatuan Bergaran.

erreseinak



**Koldo Izagirre**  
**Agirre zaharren**  
**kartzelaldi berriak**  
Eleberria

Presoen zeregin nagusia kartzelatik, hau da, gorputzak usteldu eta espiritua herdoiltzeko sortutako barrutitik, ihes egitea ei da. Nobela honetako protagonistak, Nikola Agirre miliziano zaharrak, ordea, alderantzizko ihesa egiten du, libreen mundutik doa, berak hala nahita, espetxera. Logika hankaz gora ipintzen duen ekintza horrekin hasten du Koldo Izagirrek bere azken eleberria, nobela ausart, mamitsu eta zirikatzailea, eta pasadizo harrigarri bezain hunkigarrietan garatuko du gero, askotan garratz eta tarteka gozo.

- Elkarlanean. 282 orr. 2.350 PTA



**EH Sukarra**  
**Sua urtzen**  
Rock

Aurreko diskoaren ildo beretik datorzkigu eibartarrak "Sua urtzen" honekin. Ohiko rock eta doinu melodikoak nahasten dituzte, baina urrats bat aurrerago emanaz ska erritmoak ere entzun daitezke tarteka, CDa osatzen duten hamar kantuen artean. Letrak Asier Serranorenak dira, Norton abeslariaren Lorelei pop talde paraleloko taldekidearenak; gainera, abesti batean bere ahotsa ere entzun daiteke. Berriz ere zuzeneko kontzertuei ekingo die EH Sukarraok.

- Esan Ozenki. 2.100 PTA

**KONDE**



P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

Burdinate 1  
☎ 943 76 02 57



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Mugimendu ekologistetan jarduten duena. 2. Hobedunak. 3. Bibliako pertsonaia. Opila. 4. Beheko suko gakoa. Hiru. 5. H:O. Arrantzaleek beren tresnak uzteko tegia. Nitrogenoa. 6. Ardoa. Röntgen. Errepikatuz, gorotza. 7. Azkenekoa eta lehengoa. Zuaiska mota. 8. Bat. Nire. Tu. 9. Hotzak eragindako hantura. Euskaraz eta kitto! 10. Apaiza. Orain.

**Goitik behera**

1. Neurketa. 2. Suak eragindako ke beltza. Ospearean erdian. 3. Aran mota. Denbora tarte. 4. Beharra. Ibiliaz. 5. Ogi, hitz elkarketan. Buruko estalkia. 6. Janari ongailua. Uranioa. Bokala. 7. Garoa, iratzea. Barre. Oxigenoa. 8. Asiako estatua. Uso ar. 9. Eskaini eta ez eman. Burdinazko lokarria. 10. Intsektu mota. Ukitu aditzaren infinitiboa.

**Soluzioa**

9. Tati. Katea. 10. Akaina. UKI.  
7. Ira. Irri. O. 8. Siria. Usar.  
5. Ot. Txapela. 6. Gata. U. A.  
3. Okaran. Epe. 4. Lana. Oinez.  
1. Ebaluzioa. 2. Kedarra. Sp.  
Goitik behera  
10. Apeza. Orat.  
9. Ospea. AEk.  
7. Za. Ipurua. 8. I. Ene. Istu.  
5. Ura. Xata. N. 6. Arnoa. R. Ka.  
3. Adan. Tarta. 4. Laratz. III.  
1. Ekologista. 2. Bekatarak.  
Ezker eskuma

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberebizbar

**Ze eraikuntza megalitikoren aztarnak aurkitu zituen 1920. urtean J.M. Barandiaranek Agarreburun?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Artekale** pizzeria-jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Ibon Perezentzat** izan da: Antzuolako Arin jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Iboni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Mugertza gaina (Zubieta) eta Osintxu** Galde Debalde: **1B, 2-B, 3-A**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



Artekalea 1, BERGARA  
Tf. 943 76 72 00





**Orain dala 9 urte hasi zen motorrian ibiltzen eta motorzale sutsua da; asteroko irteeriakin gutxitan egiten du huts. Arrasateko Motozale Elkarteko kidea da eta orain dala 5 urtetik Mujika ferreterian lanean dihardu.**

**Zure lehenengo motorra?**

Yamaha XT 600 bat.

**Eta orain, zein daukazu?**

Honda VFR 750 motorra.

**Zein eduki nahiko ziñuke?**

Honda CBR 1100 XX bat. Bi milioi balio dau.

**Zein kualidade behar da motorrian ibiltzeko?**

Ezer apartekorik ez; burua bere tokixan edukitzea, horixe!

**Mekanika kontuetan adittua zara?**

Zertxobait. Gauzak segittuan askatzen dittut... baiña errebisioa neuk egitten dot.

**Motorrian bakarrik ala taldian?**

Taldian joatia onena.

**Kaskoa zein koloretakoa dozu?**

Gorrixa, zurixa eta beltza. Ikurriñarekin.

**Zenbat kilometro urtean motorrian?**

15.000 inguru.

**Egindako bidaiarik luziena?**

Holandara, Assen-go zirkuitura, mundiala ikustera.

**Mundiala telebistatik jarraitzen dozu?**

Bai.

**Piloto bat?**

Doohan.

**Criville ala Checa?**

Criville.

**Motorzalien konzentraziño bat?**

Musakolakoa, Pazkuen aurretik egitten da.

**Motorreroen artean pike asko egoten da errepidian?**

## Iñaki Saez de Maturana

Kotxiak gurekin pikatzen dira gehixago...

**Otik 100era zenbatean?**

4-5 segundoan.

**"Caballituak" ala derrapajiak?**

Ez bata eta ez bestia.

**Multarik jarri dotzue sekula?**

Bai, radarrarekin harrapatu ninduen.

**Errepide onenak, non?**

Euskal Herrixan.

**Zein da motorrian ibiltzeko sasoirik onena?**

Udaberrixa eta udazkena.

**Gustoko ibilbide bat?**

Bizkaiko kostaldera, Laga aldera-edo.

**Egunkarixan irakurtzen dozun lehenengo gauzia?**

Atzeko orrialdetik hasten naiz normalian.

**Telebistako programa bat?**

Pelikulak.

**Filme bat?**

"Braveheart".

**Musika talde bat?**

Off spring.

**Zenbat ordu egitten dozu lo?**

Zortzi bat.

**200 milioi tokatu ezkeru, zer?**

Munduan motorrean ibili.

**Bidaia bat, nora?**

Cabo Nortera, Norvegiara. **B**



# Kidetasuna indartuz

## UDAKO BRIGADAK

*Mexiko, Guatemala, Nikaragua, Kuba eta Kolonbia*

**BESTELAKO INFORMAZIOA (20:00etatik 22:00etara):**


**BERGARA:** 943 76 21 48

**BILBO:** martitzen eta eguakitzetan. 94 479 07 03

**DONOSTIA:** eguakitzetan. 943 34 04 04

**GASTEIZ:** martitzen eta eguenetan. 945 14 93 79

**IRUÑA:** martitzen eta eguenetan. 948 21 11 73



**KOMITE  
INTERNAZIONALISTAK**





## Aritzeta auzokoak Asalditxan, 1933

Aste honetako erretratu duela 66 urte ataratakoa da eta bertan Aritzeta auzoko lagun talde bat agertzen da. Garai batean Asalditxa mendian (Oñati, Antzuola eta Bergararekin muga egiten duena) erromeria egiten zen abuztuan, Andra Mari egunaren hurrengo domekan. Inguruko herrietako jende pilo joaten zen bertara eta jaigiroa izaten zen nagusi. Denboraren poderioz ohitura hori galduz joan zen eta gaur egun ez da abuztuan erromeriarik egiten Asalditxan. Dena den, oraindik ere inguruan dagoen Koiskarreko ermitan meza izaten da domekero eta izango dira astero bertara joateko ohitura dutenak ere.

Esan bezala, argazkian Aritzeta auzoko lagunak ikus ditzakezue 1933. urtean. Garai hartan 17-20 urte izango zituzten eta ziur gaude ederki asko pasatuko zutela lagunartean. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

**Lehenengo ilaran:** Justo Iza, Carmen Urkiola, Juliana Garmendia eta Maria Luisa Ibarra.

**Bigarren ilaran:** Isidro Ibarra eta Txomin Irazola.

**Atzean zutik:** Jose Luis Urkiola.

Argazkia: Jesus Urkiola

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25





# ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

## ALDEKO APOSTUA

## ERRENTA SEGURUA



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

### ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

#### ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri  
honako ikasketak egiteko

### 1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
  - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
  - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak injinerutzarako konbalidatuta.

### 2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA  
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN  
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI  
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO  
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

### 3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOHKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

Kontakturako  
pertsonak



ALMEN  
IKASTOLA

Josebe  
Murumendaraz 943 71 49 07

ARRASATEKO  
IKASTOLA

San F. Xabier Margari  
Gorrotxategi 943 79 64 79

San Viator Idoia Urrutia 943 71 24 90






# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK



## BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# GRUPO **RK AUZ**

**FAGOR** 

**ALTZARIAK**

**SUKALDE INTEGRALA**



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**

Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**